

Herriko bestak

Almandozen → 31

ETXALAR → 13

Gasna Feria Eguna
ekainaren 6an

DONEZTEBE → 20

Erreka Elkartearen
Eguna ekainaren 5ean

NARBARTE → 24

Bertizarana Eguna
ekainaren 5ean

LEITZA → 28

Bertso saio eta kantu
jaialdi haundiak

Elizondon jokatu da herrialdeen arteko Kenpo txapelketa ekainaren 5ean



Arratsaldeko lauretan hasita, Nafarroa, Euskal Autonomia Erkidegoa, Gaztela eta Leon eta Madril arituko dira lehian. Gonbidatu berezi gisa, berriz, Frantziako Federazioko kirolariak etorriko dira. Aipagarria da Nafarroan dauden Kenpo Eskola bakarrak Urdazubi eta Berakoak direnez, Nafarroako taldean ariko direnak eskualdekoak izanen direla.

Gelditzen diren arrastoak ikusita, zaila da imajinatzea duela 35 urte Ollingo meategiak zuen martxa

ERREPORTAJEA → 4-5



Juanito TELLETXEA | Ollingo auzotarra (Ezkurra)



Ana ARIZTEGI | Erizaina eta fisioterapeuta

ELKARRIZKETA → 3

'Kalera oinez? Doike' kanpaina abian

Egunerokotasunean ariketa fisikoa indartzeko helburuarekin, Baztango Udalak, Cederna-Garalur elkarteak, Elizondoko Osasun Zentroak eta CRANA fundazioak elkarlanean kanpaina berria jarri dute abian: *Kalera oinez? Doike!*. Ekimen honen barne, ekainaren 6an Baztango herrietan ibilaldiak egingen dira.

SUNBILLA → 18

Soluziorik eman ez denez, protestan

N-121A errepidetik herrira sartzeko irtenbidearen kontra protestak egingiten hasiko dira sunbildarrik ekainaren 3an. Hilabetero egingen dute.



XVIII. GASNA ETA ARTISAUEN FERIA 2010 EKAINAK 6 ETXALAR



EGUN OSOAN Andremari elkarteko emakumeen eskulanean erakusketa.

GOIZEAN Haurrentzako sormen tailerrak plazan.

10:30 Artisauen erakusketa.

12:15 Herriko trikitilariak.

13:30 Gasna lehiaketako sari banaketa.

14:00 Herri bazkaria.

18:00 Herriko dantzarien saioa.



Antolatzaileak

ALTXATA
Kulturaren Erakundeak

Laguntzaileak



Nafarroako
Gobernua

HERRIKO
ARTISAUEN FERIA

LA FERIA
DE LA PAIN

ELUTSA
FERIA

ISI

ISI

2010ean ere...

Ttipi-Ttapa fundazioak zure laguntza behar du!

Zure laguntza
eskertzeko,
boltsa eder hau
opari izanen duzu!



ttipi-
ttapa

geure bezeroek
aukeratutako
proiektua **can**

Eginzazu **TTIPI-TTAPA**ren alde
proiektu zenbakia:

15.996

Eskia ezazu **TTIPI-TTAPA**ren proiektua aukeratu izanaren frogagiria Nafarroako Kitzaren zure bulegoan eta ekar ezazu **TTIPI-TTAPA**ra 2010eko abenduaren 31a baino lehen.

Kalera oinez? Doike! kanpaina abian da Baztanen eta lelo horren pean egunerokotasunean ariketa fisikoa txertatzea helburua duen ekimena dago. "Gure osasuna zein

gure herrietako bizi baldintzak hobetzearren" osasun arloko profesionalak, ikastetxeak eta guraso elkarteak, Baztango Udala, Cederna-Garalur elkarteak, Kunsthal eta CRANA funda-

zioa elkarrekin lanean aritu dira hainbat ekintza antolatuz asmoz. Elizondoko Osasun Zentroaren izenean Ana Ariztegi erizain beratarrak eman digu ekimenaren berri.

Ana ARIZTEGI | Erizain eta fisioterapeuta Iruritan

«Oinez mugitzeko ohitura galdu eta eritasun kronikoak ugaritu dira»

AITOR AROTZENA

Ariketa egitea bultzatzeko proiektua 2009ko urrian abiatu zenuten Elizondoko Osasun Zentruk. Zein urrats eman dituzue?

Urtero biltzen gara eta dauden beharrak aztertzen ditugu. Horren arabera, urtean egiten diren ekitaldiak finkatzen ditugu Elizondoko Osasun Zentruko Osasunerako Heziketa Batzordean. Oraingoan, egunerokoa jarduera fisikorik ez dela egiten somatu genuen. Arazo handia da eta ikastetxeekin elkarlanean aritzea pentsatu genuen, horiek ere arazo beretsua antzeman baitzuten. Udalarekin harremanean jarri ginen eta hau ere Cederna-Garalurrekin mugikortasun jasangarriaren afera elkarlanean ari zen. Beraz, baikoitza bere aldetik ari ginen eta elkar hartu eta proiektu hau landu genuen eta harremana izan dugu mendigoizaleekin, CRANArekin, Bertan merkatarik elkartearekin...

Batez ere nerabeetan somatu omen duzue ariketarik ez dela egiten... Egoera kezagarria dela iruditzen zaizue?

Nerabeak futbolean, saskibaloian edo txirridularitzan aritzen dira, baina ez dira toki batetik bertzera oinez joaten, ez dutte eskailerak igo edo jaus-



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Ana Ariztegi erizaina eta fisioterapeuta, kanpainaren berri ematerakoan.

teko ohiturarik, autobusean joaten dira Elizondotik Lekarozera... Gauza beretsua gertatzen da helduekin ere, seme-alabak autoarekin edo motoarekin eramaten baitituzte ikastetxetara. Egoera nahiko kezagarria da, pertsona hauek beraien seme-alabak heziko dituzten gurasoak izanzen baitira etorkizunean. Ariketa fisikoa egunerokotasunean txertatzen saiatu behar dugu eta ez dezatela zama bat bezala ikusi, ohitura osasuntsu gisara baizik.

BI URTEKO EGITASMOA

«Egitasmoa bi urtez egiteko pentsatua dago. 2009-2010 ikasturte honetan Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan eta hauen gurasoekin lantzen ari gara eta hurrengo ikasturtean nerabeekin ariko gara, institutuetan eta lanbide heziketa zentroetan, baina haurrekin ere segituko dugu lanean eta gainerako bizilagunekin, orokorrean»

Eritasun kronikoak edo haurren loditasuna aipatu duzue... Arazo hauek gehiagora egin dute azken aldian?

Nafarroan eritasun kronikoen (hipertentsioa, diabetea, dislipemia, loditasuna...) iraunkortasuna nabarmen igo da azken urteetan, hau da, gero eta pertsona gehiagok daukate eritasun horiek eta hori osasungarriak ez diren bizi-ohituren ondorio da, dieta ez osasungarria edo egoneko bizimoduarengatik.

Nola lortzen da ariketa


fisikoa gure eguneroko bizimoduan sartzea?

Eguneroko ariketa horrek onurak ekartzen dizkigula mentalizatuz eta kontzientziatuz. Helburu tikiak lortzen saiatu behar dugu, etorkizunean onura indibidualak ekarriko dizkigutenak.

Autoetan mugitzea hirietako arazoa dela iruditzen zaigu, baina gureak bezalako herri tikietan ere somatzen da?

Gaur egun hirietan kontzientzia handiagoa daukate harat-honatean oinez edo garraio publikoa erabiliz ibiltzeko. Behar bada aparkatzeko arazok ere ohiturak aldatzea behar du jendea. Aldiz, herri tikietan denerako erabiltzen dugu autoa, aparkatzeko arazorik ez delako. Baina pertsonentzat ez ezik, herrietako osasunarentzat ere hobe da autoa gero eta guttiago erabiltzea. **Ohitura horiek aldatzea posible ikusten duzue edo sobera barneratuak dituzue jendarteetan?**

Gure helburua ohiturak aldatzea da eta hainbertze gizarte eragileren partehartzea lortu dugunez, errazagoa izanen da, gero eta kontzientzia handiagoa dagoela erakusten baitu. Egoneko bizimoduak ekartzen dituen arazoei buruzko solasaldiak, eskolako bideak, tailerrak eta hainbat ekimen prest ditugu.



ARGAZKIA: ARTXIBOKOAK ETA FERNANDO ETXEBERRIAK UTZITAKOAK
Juanito Tellebxea Ollingo semea kaskoa buruan eta karburo lanpara eskuan dituela. Ezkerreko argazkietan, langileak galeria baten aitzinean —ia denak kanpotarrak— eta Compañía Vasca de Minas-ek Goizuetan eraiki zuen etxea.

MEATEGIAK → OLLIN AUZOAN

Mugimendu haundiko urte batzuen arrastoak baino ez dira gelditzen Ollinen

Hiru hamarkada baino gehiago pasatu dira Ezkurrako lurretan zeuden meategiak itxi zirenetik

Goizuetatik zazpi bat kilometrotara, Ezkurrako lurretan dagoen Ollin auzoan, garai bateko meategien hondakinak bakarrik gelditzen dira gaur egun. Baina bere urterik oparoenetan denetarik

eduki zuen: etxebizitzak, barra-koia, 30 neska-mutikoentzako eskola, kantina, jantokia, eliza tiki bat... la 200 bizilagun eta langile izatera zen ailegatu zen Ezkurrako auzo hau.

G. PIKABEA

Mugimendu haundiko garai baten arrastoak baino ez dira gelditzen orain. Baina duela 35 bat urtera arte, oso emankorrak izan ziren Basakabitik Goizuetara bidean, Ezkurrako lurretan zeuden Ollingo meategiak. Lehenagotik ere, XIV. eta XIX.

mendeen artean, lanean aritu ziren Ollingo meategiak, Europa iparralde-
ra eta Ameriketara burdina esportatzen baitzen. Ezkurrako Fernando Etxeberriak *Ezkurra, herri berezian* liburuan dioenez, 1877tik 1910era La Navarresa konpainiaren esku egon ziren eta mi-

nerala ustiatzen ibili zen. Eta ordukoak dira Ollingo meatzarien auzoko lehen aztarnak. 1920 aldera, berriz, Real Compañía Asturiana de Minas en-
skuetatik pasatu zen, harik eta 1945 aldera, Bilboko Compañía Vasca de Minas-ek berri zabaldu zuen arte. Martxa

haundiko urteak izan ziren baina 1976 aldera, itxi egin ziren.

Familiaz betetako etxebizitzak, barrakoa, eskola, kantina—denda—, bulegoa, jantokia, sukaldea, kapilla txiki bat, frontoia... Denetarik eduki zuten bere garairik onenean, eta 200 bizilagun eta langile ere bai.

Meategia tarteko, apartatutako auzo izate-
tik mugimendu haundiko auzo izatera pasatu zen Ollin. Eta geroztik hiru hamarkada baino gehiago pasatu badira ere, orduko martxaz ederki gogoratzen da Juanito Tellebxea, Ollingo auzotar ohia (Ezkurra, 1949). «Meategiak ireki arte, Ollinen hiru etxe bakarrik zeuden: kamineroarena, bi solairutan lau bizitza zituen beste etxe zahar bat eta gu bizi ginena», azaldu digu Tellebxeak. Eta «poliki-poliki, boltsa bizkarrean edo beste asko ezer gabe oinez jendea etortzen hasi zen». Jendea etorri ahala, au-

DATUA

200

LANGILE ETA BIZILAGUN izatera ailegatu zen Ollingo meatzea bere garairik onenean.

zoa zabaltzen joan zen eta beheko etxe zahar-
rari beste solairu bat eman eta sei bizitza jarri omen zituzten. «Guri etxe bat egin ziguten gorago eta gure etxe hori sukalde izateko aprobetxatu zuten. Ondoan barrakoi haundi batekin zuten. Jantokia ere egin zuten eta beste aldean, kapilla, pertsiana batekin. Igandeetan Goizuetatik apaiza etortzen zenean, kapillako pertsiana igo, jantokiko bankuak bildu eta hango bankuak aprobetxatuz meza ematen zuten». Hantxe biltzen omen ziren auzotarrak eta inguruko mendietatik joandako Leitza eta Ezkurrako artzainak.

MEATEGIKO LANGILE IZANDAKOekin SOLASEAN



Antonio APEZETXEA | Goizueta

«Paretak egiten, zaintzale bezala ere bai askotan... Horrelako lanak egin nituen Ollinen»

Meategiak militarizatuak zeudela aprobetxatuz, soldaduska egitera kanpora joan ordez, meategian lanean aritzeko hautua egin zuten inguruko mutil gazte askok, eta Antonio Apezetxea goizuetarrak ere halaxe egin zuen. 20 urte betetzear zituela sartu zen meategietan, eta bi urte inguru egin zituen hantxe. «Paretak egiten, zaintzale bezala ere bai askotan...», horrelako lanak egokitu zitzaizkion. «Nozbait zulo barrenera ere sartu nintzen, baina lanera ez». Zazpi bilete kobratzen zituela ere gogoan du, baita han lanean ari zela hanka hautsi zuela ere: «labaderoaren goiko paretatik erori nintzen eta hanka hautsi nuen. Gero, gainera, gaizki paratu zidaten eta bajarekin egon nintzen».



Inaxio BIURRARENA | Arano

«Soldaduskara ez joan, eta etxean gasturik egin gabe, ederki pasatu nuen»

Inaxio Biurrarena aranoarra ere, soldaduskara ez joateagatik hasi zen meategian. Eta 1951tik 1954ra, «21 urte nituenetik 24 urte bete arte», han ibili zen. Gehienbat kanpoan aritu zen lanean: «aurrean, harrobia garbitzen aritu ginen, gero enpresarentzako etxea egin genuen Goizuetan, minerala igotzen zutenean hura deskargatzen ere aritu nintzen, eta azken urtebetean labaderoan». Meategi barruan aritu zenean, bagoientzako bideak paratzeaz arduratu zen. Ez du orduko oroitzapen txarririk 80 urteko aranoarrak; alderantziz, «oso onak». «Soldaduskara ez joan, eta etxean gasturik egin gabe, ederki pasatu nuen». Goizuetan pasatu zituen urte haiek, handik kamioian eramaten baitzuten meategira.



Jose Ramon AROZENA | Goizueta

«Nire bizitzako sustorik haundiena hartu nuen zulo barrenera lanean ari nintzela»

Jose Ramon Arozena goizuetarrari, meategi barruko lana ezagutzera ere tokatu zitzaion. Eta hantxe hartu omen zuen bere bizitzako «sustorik haundiena». Baserrian senide asko eta dirurik ez zegoela-eta, 17 urterekin amak meategira bidali zuen. Bera bezala, gainerako goizuetarrak ere Urrutineko Manolo zenarekin ibiltzen omen ziren herritik kamioian Ollinera joateko. Baina hasi eta berehala, Titillako Auxtinekin zuloa joateko agindu zioten. Eta lanean ari zen hasierako egun batean hartu zuen sekula ahaztuko ez duen sustoa: «gu lanean ari ginen galeriatik hurbil, tiro haundia bota zuten eta asko ikaratu nintzen. Auxtini itsatsi nintzaion, eta hura niri». Egundak, gehiago ez zuela bueltatu nahi esan omen zion amari. Baina amak joateko, berak hitz eginen zuela arduradunarekin. Eta horrela egin zuen amak. Hasi eta hamabost egunen buruan, zulotik atera eta kanpoan jarri baitzuten lanean: «kamioia kargatzen hasi nintzen, eta gero oraindik hobeki, kamioiarekin bueltaka jarri baitzidaten Manolorekin. Handik, matxakara, harria txikitzen, eta gero labaderoan». Hiru urte joan zitzaizkion horrela. Aurreneko esperientzia «txar» hura kenduta, garai onak izan zirela adierazi digu 76 urteko goizuetarrak. Egundeko 10 bat pezetak irabazten omen zituen, astean, larunbatak lan eginda, 60 pezetatik goiti, eta «gutxi izan arren, familiarentzat ongi etorri zen». Meategia martxan egon zen urteetan herrian mugimendu haundia izaten zela ere azaldu digu: «etxe zahar gutxiak bete ziren eta orduan adina jende nik ez dut sekula ezagutu Goizuetan». Hiru urteren buruan, meategian ari ziren goizuetarrak gero eta gutxiago zirela ikusita, mendira joatea erabaki zuen.

Meategiak funtzionamenduan egon ziren aurreko aldirian, inguruko jendearekin izandako esperientzia txarra izan zen. Meategi barrenera hautsi eta kearen ondorioz, langile asko silikosiak jota hil baitzen. Hortaz, meategiak Bilboko enpresaren esku egon zirenean, lan gogorrena egitea kanpoko langileei egokitu zitzaion: Extremadura, Leon, Asturias, Andaluzia, Galizia... Baita marokoar batzuei ere. Kanpotarrek zuloan aritu behar izan zuten, eta inguruko herritako gehienak, aldiz, tartean goizuetar andana, kanpoko lanetan ibili ziren. Eta 60. hamarkadatik aurrera, gaian espezializatua goak zirenak ekarri zituzten Asturiasetik.

Azken 37 urteotan, Leitzañan bizi bada ere, oso oroitzapen onak ditu Ollinen inguruan Juanito Telletxeak. Ezkurrako Udalak errentan emandako etxe hartan bizitu baitzen 14 urte bete arte, guraso eta senideekin. Mutiko kozkorra zela, han ikusten zuen jendea joan-etorrian eta lanean, eta langileen artean «tarteka okasioak» izan arren, «gu oso on-

gi tratatzen gintuzten, eta sekula ere ez zituen ezer egin». Zulo barrenera lana izan zen batez ere gogorra, baina momentu onak ere izaten zituzten: Santa Barbara Eguna, adibidez. Abenduaren 4arekin ospatzen zuten egun hau besta haundia izaten zen. Meza, bazkaria, eta tarteka apusturen bat edo beste ere izaten omen zen egun honekin.

Materiala bukatu zenean, 1976 aldera, itxi egin ziren meategiak. Eta Ollinen bizi ziren familiak ere handik alde egin zuten: «kaminoaren familia Leitzañara joan zen, beste etxebizitzetakoak ere joan ziren, eta gure etxea Ezkurrako Udalak bota zuen mendiko pista bat egiteko», dio Telletxeak.

1979ko maiatzaren 19an, Ezkurrako Udalak enkante publikoan atera zituen barra-koiak eta beste hondasunak, eta halaxe dago geroztik, geldirik. Orduko mugimendu hartaz gogoratu eta orain nola dagoen ikusita, «pena» ematen diola aitortu digu Telletxeak. Zaila baita oraingo hondakinei erreparratuta, orduko martxaz jabetzea.



Nire txanda
Iñaki ALUSTIZA

Aurten bai

Badire modu asko mundu honetako gizakiak sailkatzeko: futbola, izan daiteke horietako bat (futbola gustukoa dutenak eta ez dutenak; gustukoa duten artean, talde desberdinetako zaleak...). Futbola maite ez dutenek, zera diote: nola izan daiteke posible munduan ditugun arazo guztiak, gauza borobil horren erruz momentu batez ahaztea? Nola erakar dezake horrenbesteko jendetza, nola mugi dezake hainbesteko dirutza, eta nola sor dezake horrelako poz edo tristura... Hala da bai, baina... bizi-tza azkenean ilusio bat da, eta ilusiorik ez duenak ez du bizi-pozik. Badire gauza asko ere ilusioa ematen dutenak, eta gauza berak, ilusio desberdina sor dezake pertsona batean edo bestean. Ilusioz solastuz... bada gauza bat, Realzaleoi, ilusioz betetzen gaituena: Realaren igoerak.

Nola izan daiteke posible munduan ditugun arazo guztiak, gauza borobil horren erruz momentu batez ahaztea?

Ezpala

Aitor AROTZENA

Bidegurutzearen gurutzebidea

Berriz ere N-121-A errepidea hizpide dugu. Behobia eta Berrizaun arteko lanak egin ondok, trafikoa zerbait berretu da, 10.000 ibilgailu pasatzen omen dira egunero Sunbilla paretik. Eta herrira ateratzeko bidegurutzearen arriskua saihesteko Iruñetik emandako soluzioak ez ditu sibilidarrak asebate. Protestan hasiko dira, noizbait bidea gurutzatzea gurutzebidea izan ez dadin.

Nabarmentzekoak



Ainhoa ANSA
Aranoko segalaria

Okzitaniako Le Fossat herrian ospatutako 4. Sega Eguneko sailkapen orokorrean bigarren eta emakumezkoen artean garaile izan zen aranoarra, naziorteko 32 segalariren artean.



Xabier PLAZA
Zalain Zokoko ehiztaria

Nafarroako arrastoko ehiza zakurren bigarren txapelketa irabazi zuen Xabier Plaza Garbisuk maiatzaren 8an Etxarri-Aranatzen, *Jai* zakurra-ekin 153 puntu esku-ratu ondok.



Niko MINDEGIA
Eskubaloijokalaria

Doneztebekoak Espainiako selekzio absolutoarean kontzentrazio baterako deia hartu du lehen aldiz. Ea Munduko txapelketarako sailkapen fasean parte harterik duen.

Atzera begira → 1994.06.02 / TTIPI-TTAPA 135. zbk



Bortzirietako DYAk hamar urte bete zituen

1994ko maiatzaren 22an bazkari batekin ospatu zuten Bortzirietako DYAk ki-deek beren 10. urtemuga. Hamarkada horretan 1.772 asistentzia eginak zituena, DYA hizkien erranahia betetzen saiatuz: Gelditu eta Lagundu. Jose Mari Irazoki, Bortzirietako DYAk arduradunak TTIPI-TTAPari aipatu zionez, «boluntarioak garela kontuan hartuz, DYAn aritzeko batez ere lanerako eta sakrifizioarako gogoia behar da». Profesionalizazioaren alde ere egin zuen Irazokik: «berez ez luke DYA edo Gurutze Gorria bezalako erakunderik izan behar, horretan ari direnak profesionalak izan beharko lukete, baina bitartean lanean segituko dugu». Gaur egun ez dago DYAk ordezkartzarik Bortzirietan.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Anduetzeta, 12 • 31760 ETXALAR
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usoa Vicente, Kulturkari SLU **Berriemakileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Sazar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Arantxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Xan Harriague, Markel Lizasoain, Eneko Mitxeo, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Iñaki Tellebea...

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2010eko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria37€	Europa55€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka31€
Ipar Euskal Herria55€	Amerika eta Australia123€	Leitza15€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak
diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

Aldatzen

Pello APEZETXEA

Bi mila eta gehiago urteko paperetan leitzen dugu honakoa: *Deus berririk ez eguzkipean*. Eta egia da egunero argitzen duela, eta egunero ilundu; uda eta negua urtero errepikatzen dira. Egia da jaiotzak eta heriotzak behin eta berriz gertatzen direla.

Baina hori egiaren erdia da, egiaren zati bat. Hainbat gauza aldatzen ari dela ere ez baitugu ukatzen ahal. Zenbat aldiz erranketu dugu: gure aitzinekoek burua altxatuko balute eta gaur egungo zenbait gauza ikusi! Harrituta geldituko lirakeela, alegia. Eta ez naiz ari orain duela bi mila urtekoaz, ezta orain dela bortzehen urtekoaz ere, aunitzez hurbilekoaz baizik.

Konpara ditzagun duela berrogeita hamar urtekoa eta gaur eguneko. Gure herrietan ia jende guztia azienda eta lurgintzatik bizi zen. Auto biderik ez zen base-rietara, eta autorik ere ez; mila biztanleko hiruzpalau auto herri guztian? Telefonoa karrikan bakarrik. Herriko eskolako ikasketaz haratagoko aukerarik ez. Osasun zerbitzua, herrikoaz gain, ia-ia bilatu ere ez. Jende aunitz kanpora lanera, Amerika edo Frantziara, batez ere, artzain, edo neskatu.

Nolakoa da egungo egoera? Salmentarako produktu nagusia zen behi esnerik ia ez da. Egunero janaria zen artoa nork egiten du? Industria da irabazbidea. Leitzako papertegia, Lesakako laminazioak, Berako hainbat lantegik hornitu dute jende gehienek beharra. Autoentzako behar diren auzobideak irekitzea urte hauetan ezagutu dugu. Ikasketarako aukera ugari, unibertsitatekoak barne. Osasun etxeak eta ospitaleak sortu eta hobetu, biziraupena luzatu. Telebista eta ordenagailuak etxe guztietan sartu dira, eta elkarrekin aisago komunikatzeko aukera dugu.

Jendearen harremanak ere aldatu dira: lehen hainbateko astirik ez da elkarrekin egoteko, lan ordu gehiago sartzen baita. Bertze herritarren beharrik ez dugu, lehen bezala. Lehen ez genuen sosa orain badugu, eta nornahi, bertako edo kanpoko, behar dugula? Deitu eta ordaintzea aski.

«Jendearen harremanak ere aldatu dira: lehen hainbateko astirik ez da elkarrekin egoteko, lan ordu gehiago sartzen baita. Bertze herritarren beharrik ez dugu, lehen bezala. Lehen ez genuen sosa orain badugu, eta nornahi, bertako edo kanpoko, behar dugula? Deitu eta ordaintzea aski»

Kutsatuak gaude?

Luis GARDE

Duela urte bat, Mexikotik etorri zen mundu guztia asaldatu zuen berri txar bat: pertsona bat hil zen birus berri batek jota; H1N1 birusa, hain zuzen, hasieran gripe portzina izenez ezaguna, geroxeago A gripea. Infekzioa agudo hasi zen munduan zehar zabaltzen, eta handik gutxira, ekainean, OMS-ek (Organización Mundial de la Salud), hogeitabatgarren mendeko lehenengo pandemia deklaratu zuen. OMSren arabera, munduan ehun eta berrogeitamar milioi pertsona hil behar ziren A gripeaz kutsatuak.

Orain arte, hemezortzi mila inguru izan omen da mundu osoan hildakoen kopurua. Horietako 400 baino guttiago Estatu espainarrean. Ez da izitzeko kopurua, kontuan hartzen badugu hemen urteroko gripe arrunt batak hiru mila hildako eragiten dituela. Nor oroitzen da orain osasun agintariak behin eta berriz ematen zizkiguten aholkuez? Musurik ez ematea, eskua ez tinkatzea, eskuak jarraian garbitzea... Nafarroako eskoletan irailean kurtso berriaren hasiera eskalonatua...

Barregarriak. Broma erraldoi bat, mundu mailako txantxa bat. Baina kontu hau, nork ordaintzen du? Zeren hainbertze herrialdeetako gobernuek erosi zituzten milioika txertoak erabili gabe gelditu dira. Txertoen erosketa masiboei esker, gainera, farmazia laborategi eta enpresak, aberasteaz gain, Burtsetan kotizazioen igoera handiak izan zituzten. Susmo txarra da, noski, A gripearen gibelean ongi diseinatutako estrategia bat dagoela: gaixotasuna puztu, beldurra beldurra edota histeria sortu, eta azkenean soluzioa ere saldu. OMSen bertan lan egiten duten mediku anitzek, pandemiari esker aberastu diren laborategi farmazeutikoen zat ere egiten omen dute lana.

Orain, arlo ezberdinetan kontu honi buruzko ikerketa sakona eskatzen ari da, afera honen gorabeherak argitu aldera. Sobera berandu, seguru asko. Sarri eguneroko berrietan eta informazioetan sartuak eta galduak gabiltza, uste dut gure ahazteko kapazitatea gero eta handiagoa dela. Hemen diok guttira guztiz ahaztuta edukiko dugu A gripea; eta laster farmaziaren multinazionalak atean joka izanen ditugu hurrengo epidemiarako botika saltzeko prest. Epidemiarik txarrena, kutsatzen gaituena, beldurarena da. Epidemia hau kutsatzetik bizi dira aunitz.

«Epidemiarik txarrena, kutsatzen gaituena, beldurarena da. Epidemia hau kutsatzetik bizi dira aunitz»

Irakurleak mintzo

Mendi
komunaletako
borda eta
eraikinen tasak

Leitzako Eusko Alkartasunako Herri Batzordea

2009. urteko kargatasak, tasak eta prezio publikoak 2008ko urriak 31kako Batzarrean onartu ziren Ezker Abertzalearen aldeko botoekin. Leitzako Eusko Alkartasuna, hauek aurkeztutako proposamenarekin ez zegoen ados. Orduan, Aitor Etxarri, EAK Leitzako udalean duen bozeramaileak esan zuen bezala, KPI (IPC-a) igotzearekin nahikoa zen, egungo zailtasun ekonomikoak eta krisi egoera kontuan hartuz. Gainera, EArentzako Ezker Abertzaleak planteatutako tasa igoerak gehiegizkoak ziren eta EAKo zinegotziak kontrako botoa eman zuten 2008ko urriaren 31ko Batzarrean, lehen aipatu bezala.

Orduko proposamena hurrengoan zen, herri-lurren aprobetxamenduak arautzen dituen ordenantza:

- Komunaletako bordak 0,24 €/m²-tik 1 €/m²ra igotzen zen.
- Komunaletako eraikinen, berriz, 0,24 €/m²-tik 5 €/m²-ra.

Erabaki hau, gerora ikusi den bezala inongo kriteriorik gabea izan zen.

Kontuan hartuta hauek 2009. urteko tasak zirela, 2010. urteko ilbelterako Eusko Alkartasuna, jakinaren gainean zegoen herri-lurretan

bordak eta eraikinak dituzten herritarrek ordaindutako kanonaz, eta pertsona hauekin biltzen da hauetariko batzuk horrela eskatuta. Esan behar da, gehiengoak, Ezker Abertzaleak hartutako erabakiarekin oso haserre zeudela eta Eusko Alkartasunarengana hurbildu zirela laguntza eta argibide eske.

Leitzako EA egoera berri honen aurrean afektatuei laguntza ematea prestatzen da. Herri-lurretan eraikinak eta bordak dituzten pertsonekin adostuta idatzi bat prestatzen dugu eta gure laguntza eskaintzen dugu firmak bildu eta idatzia udaletxean erregistratzeko.

Mendi komunaletan eraikinak eta bordak dituzten herritarren idatzia eta firmak 2010ko otsailaren 5ean erregistratzen dira. EAK pertsona afektatuei laguntza eskaini eta eman ondoren, Ezker Abertzaleko mendi batzordeko delegatuak 2010ko otsailaren 8rako Leitzako udaletxean mendi batzordea konbokatzen du presaka. Bertan, mendi delegatuak martxoak 22ko idatzian afektatuei bidalita ko proposamena azaltzen du.

EA, otsailaren 8an Ezker Abertzaleak aurkeztutako proposamenaren kontra azaltzen da. Tasa hauen aldaketak emateko mendi komunaletan eraikinak eta bordak dituzten herritarrek otsailaren 5ean erregistratutako idatzian eskatzen zituzten arrazoiak, irizpideak eta baldintzak zeintzuk izan ziren ez zi-



Bota bertsoa

Bitor ELIZAGOIEN • Neurria: Hamarreko haundia

Kalera? Oinez doike!

Ohitura zaharrak berreskuratu perezak utzi aparte seme-alabei erakutsiaz hainbat kirol, hainbat arte osasunare ondu liteke kirol pixka bat bitarte mundu honetan bizi nahi dunak larogeita hamar urte oinez ikasi dugunok oinez ibiltzea ez da kalte.

Ibilgailuak ez dira txarrak baina betire neurrian ona da berriz gure buruak e(d)ukitzea indarrian oinez ibili beti kotxea erabili beharrian burua lepo gainean eta zangoak berriz lurrian lehenago ere hola ibiltzen baitziren Euskal Herrian.

relako azaltzen. Horretaz gain, afektatuak idatziz jaso beharreko erantzunaren zain zeudenez, tasen aldaketan irizpideak eta baldintzak zeintzuk izan ziren jakin ahal izateko, 2010ko otsailaren 26ko Batzarrean ere aurkako botoa eman zuten EAK. Beraz, EA-k bai batzordean bai Batzarrean kriterio berbera erabiltzen du, hau da, 2008. urtean ordaindu zen tasa kobratzen jarraitu behar zela, gehienez ere IPC-a igota.

Garbi dagoena zera da, tasak aldatzeko momentuan ez dela inongo kriterio seriorik erabili, izan ere mendi komunaletan eraikinak eta bordak dituzten herritarrei 2010ko martxoak 22an bidalitako idatzian esaten baita, Ezker Abertzaleko zinegotzien «akatsa» izan dela hau guztia. EArentzako seriotasun falta eta arduragabekeria izugarria da hau dena, izan ere, udaletxe batean aurrekon-

tuez gain, datorren gairik serioena herritarrei tasak jartzea eta kobratzea baita.

Hau dela eta, EAK 2010ko apirilaren 8an hurrengo eskaera erregistratu zuen udaletxean:

2009. urteko herri-lurretan dauden eraikinen gain ezarritako tasaren dirua hauen jabeek itzultzea eta 2009. urteko tasa 2008. urteko tasaren berdina izatea, gehienez ere IPCa igota. Hau da, «akatsa» izan den aurretik bezala kobratzen jarraitzea.

EAK, apirilaren 8an erregistratutako eskaria dela eta mendi delegatuak, EAKo bozeramaileari arratsalde horretan izandako mendi batzordean, gure erregistratutako eskaera aztertuko zutela adierazi zion eta formularen bat bilatuko zutela herri-lurretan bordak dituzten pertsonen dirua nolabait itzultzeko, zuzenean ezin baita diru hori itzuli. Mendi de-

legatuak batzorde berean esana da hurrengoan ere, herri-lurretan eraikinak dituzten pertsonen ez zaiela ezer itzuliko, izan ere, nahita jarritako kanona izan delako: komunaletako eraikinak 0,24 €/m²-tik 5 €/m²-ra. Kontuan hartu behar da ere afektatutako zenbait pertsonen kezak luzatu zituztela udaletxean.

Bukatzeko esan, Leitzako Plan Municipalak bere 50. artikuluan ez duela uzten mendi komunaletan dauden bertiko borda tradizionalak konpontzen. Artikulu hau dela medio zenbait herritarrek beraien bordak konpontzeko arazoak aurkitu dituzte. Leitzako EAK borda tradizionalak dituzten herritarrek beren jarduerarekin jarraitu eta noizbait borda hauek konpondu ahal izateko artikulu hau zuzentzea proposatu du, 2010ko maiatzaren 10ean udaletxean erregistratuz.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.net

Posta:

Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR

Tel.:

948 63 54 58

Faxa:

948 63 54 57

Hor barna jasoak

Bada hor nonbait, diotenez, zuhaitz haundi bat. Imajina ezin daitekeen bezain haundia, milioika eta milioika hosto dituena.

Pertsona bat hiltzen denean, haren aurpegi bizi bihurtzen da zuhaitz handiaren hostoetako bat.

Haize leun batek kulunkatzen ditu aurpegi guztiak. Ez dira aspertzen batere, solasean, irriz eta kantuan.

Denok daukagu zain, diotenez, hiltzen garenerako (gure aurpegia) hosto bat zuhaitz haundian.

Zientzilari, kazetari eta filosofo aunitz dabilta zuhaitz horren bila. Baina inork ez du aurkitu oraindik.

Ehun ipuin hitz gutxitan (ELKAR)

JoseAntonio Ormazabal-eri (Zegama 1948-2010).

Hirea. Hire oroigarri.



11 galdera labur

Non moldatzen zara hobekien, bizikleta gainean ala paper tartean?

Bizikleta gainean, dudarik gabe.

Lizarteko zuzendari nolatan?

Barreneko harrak eskatzen zidan mundu horretan segitzea, eta nahi hori asetzeko, asteburuetan, orain arte taldekideak zirenekin zuzendari lana egiten dut.

Zuzendari izanik, zerk ematen dizu buruhausterik haundiena?

Zenbait momentutan ni bolantearekin egotea, eta ez lasterketan, taldean hutsuneak ikusi eta batzuetan tapatzen ahalko nituzkeela pentsatzeak.

Zergatik utzi zenuen bizikleta?

Garbinuen ez nintzela edozein preziotan pasako profesionalerara, eta aukera hori ez zelako ailegatzera erabakinuen uztea.

8 urte afizionatuetan. Garairik onena zein?

Azken lau urteak.

Lehen bezala zaintzen al zara orain?

Inondik ere ez. Horrekin ez dut erran nahi nire burua utzi dudarik. Kirola gustuko dut eta egunero ez bada, astean hiruzpalau egunez korrika edo bizikletan ibiltzen saiatzen naiz.

Profesioletan dopina eta positiboa maiz somatzen dira. Eta afizionatuetan?

Kontroliak ez dagoen bitartean, ez da ikusten zer dagoen, eta afizionatuetan, zoritxarrez, kontrol gutti dago. Arazoa azpitik konpondu behar da eta horretarako kontrol gehiago behar dira B mailan.

Baduzu bertze afiziorik?

Gehiegi! Denbora gutti dut ditudan afizioetarako: ehiza, zakurrak, kirol gehienak, motorra, etxean egon, neskalagunarekin egon... Bestara izan ezik, ia denetara.

Almandozko bestetan, lana edo besta?

Besta!

Bestetako onena?

Mahai giroa. Herrikiotian bestarik haundiena mahai giroan egiten da.

Almandoztarra ala baztandarra, zer sentitzen zara lehenago?

Almandoztarra, dudarik gabe.



Garikoitz ATXA → Almandozko txirrindulari afizionatu ohia

BERA Zure ingurua klase guzietako insektuz (xomorro, zinoarra, ormiarra, kakaxu...) eta errotoi xagutzar gorbitu nahi beduza, deltu! Termite eta Pipien tratamenduak

GOIEKO Industria Garbitasun Produktuak

Tel: 948 625 597 • Zainari, 42 A • BERA

PAUSOKA OINETAKOAK (IRRI BERRIAK)

- Gizon, emakume, gazte eta haurrentzako oinetakoak
- Osagarriak eta bitxiak
- Oinetakoan konponketa

Iturlandeta, 6 • BERA • 948 625 417

LABE ZAR

Tel: 948 631 076 • BERA

udana salazones

UNE-EN-ISO 9001
IAC
SQC-02-0199

Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta kongelatua, erabiltzeko prest

Alkaiaga ind. - Bararta, 8 - 23 pabiloia - LESAKA - Tfnoa: 948 631 536 - Faxa: 948 631 560

ZOANSA

SEAT
VW
HYUNDAI
Audi

MARKA GUZIEKON KONPONKETA
Bararta, 2 - Alkaiaga industrialdea
LESAKA (samera Baratik)
Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

KULTURA

BERTSOLARITZA → ESKOLARTEKO TXAPELKETA

14-18 urte artekoen Nafarroako Eskolarteko finala ortziralean egingen da Beran

14 urte artekoen finala, berriz, ekainaren 5ean jokatu da

TIPI-TTAPA

Udaberriarekin batera, ailegatu da Eskolarteko Txapelketen tenorea ere. Bertsozale Elkartek antolatuta, Iparraldean, Gipuzkoan, Araban eta Nafarroan jokatu dira, bi kategoriatan banatuta: 14 urte arteko gaztetxoak batetik, eta 14 eta 18 urte

bitartekoak bertetik. Bada, Nafarroari dagokion finalerako bat Beran jokatu da ortziralean honetan, maiatzak 28. 14 eta 18 urte bitarteko finala, hain zuzen, Kultur Etxean egingen da.

14 urte artekoen finala, berriz, ekainaren 5ean jokatu da Larraintzarren, Nafarroako Bertso Eskolen Egunean.

Bertzalde, Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketako finala Agurainen (Araba) izanen da ekainaren 19an.

EUSKARA → HIZKUNTZA ESKUBIDEAK

'Nafarroan euskaraz bizitzeko eskubidea' aldarrikatu dute milaka lagunek

Euskararen alde Nafarroan egin den agerraldirik jendetsuena

TIPI-TTAPA

Euskararen alde Nafarroan inoiz egin den manifestaziorik jendetsuena egin zen maiatzaren 15ean Iruñeko

karriketan. Kontseiluak deitutako deialdiarekin bat egin, eta nahiz eta euriaren beldur izan, milaka eta milaka lagunek aldarrikatu zuten *Nafarroan euskaraz bizitzeko eskubidea*.

Manifestazioaren erantzuna ikusita, Kontseiluak Nafarroan Hizkuntza Politika diseinatzeko dutenei hausnar-



ARGAZKIA: BERTSOZALE ELKARTEA

Bertsopaper lehiaketako sariak banatu dira Baztan-Malerrek

Bertsolaritza Hezkuntza Arautuan proiektuaren barrenean, Bertsopaper lehiaketa antolatzen du azken urteetan Nafarroako Bertsozale Elkartek. Bortz eskualdetan egingen dituzte sari banaketak, eta maiatzaren 12an, Baztan-Malerrekako aurtengo sarituak jakinarazi ziren Elizondoko kiroldegian. **Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako** artean, Baztan Ikastolako Oier Ariztegi eskuratu zuen lehenbiziko saria. Erratzuko Malen Altzuarrek eta Baztan Ikastolako Gilen Quartier eta Laida Renteriak ere aipamenak jaso zituzten. **Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailan**, Iruñitako eskolako Laura Bikondok lortu zuen lehen saria eta aipamenak haurtzat izan ziren: Doneztebeko San Miguel ikastetxeko Irati Arrastio, Julen Larretxea eta Maitane Oteizarentzat; Erratzuko eskolako Ane Fagoaga eta Beñat Iturburuarentzat; Elizondoko San Franzisko Xabier eskolako Itziar Urra, Ane Etxabe eta Anderrentzat; Baztan Ikastolako Anne Garmendia eta Eider Quartierentzat eta Iruñitako eskolako Iñigo Dendarieta eta Lorea Lizarretarentzat. **DBHko 1. eta 2. mailan**, azkenik, lehenengo saria Doneztebeko Mendaur Institutuko Beatriz Maritorenentzat izan zen eta aipamenak ikastetxe bereko Jon Aldabek eta Lekarozko Institutuko Sukil Etxeniketik hartu zituzten. Mendebaldeko sari banaketa, berriz, asteazken honetan, maiatzak 26, egitekoa zen Leitzako zinema aretoan. Eskualde horretan sartzen dira, bertzeak bertze, Leiza, Goizueta eta Aresoko ikastetxeak.



UTZITAKO ARGAZKIA

Milaka lagunek bat egin zuten Kontseiluak deitutako manifestazioarekin.

keta eskatu zien, eta aldi berean, «gure aldarriak ez dira manifestazio honetan geratzen, bihar ere euskararen normalizazioaren alde lanean jarraitu beharko dugu», adierazi zuen.

Besta giroan egin zen manifestazioa, trikitixa, akordeoia, batukada eta joaldunak tartean zirela. Manifestazioaren bukaeran, Gaztelu Plazan, «Euskaraz bizi nahi dugu, euskaraz ez bada,

ez delako bizitzea guretzat», nabarmendu zuten Kontseiluak, eta «osorik euskalduntzea bermatuko duen hezkuntza sistemaren erreforma» ere eskatu zuten.

UDALA → SANESTEBAN BESTAK

'Berako Oihua' eta kartel lehiaketako lanak aurkezteko epea zabalik dago

Ekainaren 11 eta 4ra arte aurkezten ahal dira lanak

TTIPI-TTAPA

Sanesteban bestetako programarekin banatuko den *Berako Oihua* aldizkarian artikulua idazteko deialdia egin du Udalak. Nahi den gai eta luzera izaten ahal dute, eta irudi edo argazkiz lagunduak joaten ahal dira. Artikulu guzientzako lekua ez izanez gero, entregatze ordena errespetatuko litzateke.

Aurkezteko epea ekainaren 11n akabatu da eta bi modu daude aurkezteko: kultura@berakoudala.net zein kultura.bera@gmail.com era idatziz, edo Kultur etxera eramanez.

KARTEL LEHIAKETA

Ekainaren 4an bukatuko da bestetako kartelak aurkezteko epea. Nahi duen guziak parte hartu ahal izanen du, eta nahi hainbertze lan aurkeztu ere bai. Kartelak

besta giroa islatu beharko du *Berako Sanesteban Bestak 2010* testua agertu beharko da nahi-taez. Gainerako xehetasunak www.berakoudala.net web orrian.

San Huberto txapelketa

Nafarroako Ehiza Federazioak antolatuta, San Huberto Promozioko bi-

garren proba jokatuko da larunbat honetan, hilak 29. 08:00etan egin dute hitzordua suhiltzaileren parkeko aparkalekuan eta proba tiro eremuan jokatuko da. Espainiako Txapelketarako puntuagarria izanen da.

Udalbiltza auzia

Udalbiltzaren kontrako epaiketa uztailaren

15ean hasiko da Madril. Hilabete berean bertze hiru saio izanen dira eta irailean segituko du. Duela zazpi urte abiatu zuen Garzon epaileak auzia, eta geroztik epaia-zen zain egon dira 22 auzipetuak, tartean Oskar Goñi herritarra. 10 urteko kartzela zigorra eskatua du Fiskaltzak bere kontra.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Kanpoko zein herrikoen antzerkiak Mugaz Gain Antzerki Jaialdian

Joan den astean bukatu zen Mugaz Gain Gazteentzako Antzerki Jaialdia. Lehenbiziko astean DBHko ikasleak aritu ziren, eta Lehen Hezkuntzakoak bigarren astean. Argazkian ageri diren Rikardo Baroja ikastetxeko ikasleek, erraterako, *Elurte haundia* antzezlan eskaini zuten maiatzaren 20an.



Pertsonaia
Aitor ERDOZAIN

Errendimendu bikainagatik estatuko saria hartu du

Txistularia, dantzaria, bizikletan ibiltzea gustuko duena... Eta ikasle bikaina ere bai. Unibertsitate ikasketetan errendimendu bikainagatik Espainiako Gobernuak Hezkuntza Ministerioak ematen duen sari bat hartu baitu aurten Aitor Erdozainek. Telekomunikazio Ingeniari-tza ikasketak egin ditu Aitorrek Nafarroako Unibertsitateko Goi-mailako ingeniari-tza eskolan, Donostian, eta horri dagokion estatuko bigarren saria da eman diotena. Aipamen honen bidez, 2.650 euro hartuko ditu. Gaur egun, doktoretza egiten ari da 25 urteko gaztea.

BERAN...
MAITEMINDUKO ZARA
IKUSGARRIAK!!!!
ETXEBIZITZA SALMENTA
T. 620 451 425

LESAKA

EHIZA → NAFARROAKO ARRASTOKO EHIZA ZAKURREN II. TXAPELKETA

Zalain Zokoko Xabier Plaza eta Jai Nafarroako txapeldun

Herriko ehiztari ordezkaritza handia izan zen maiatzaren 8an Etxarri Aranatzan



ARGAZKIA: NAFARROAKO EHIZA ELKARTEA

Ezker-eskuin, Xabier Almandoz, Agoitz Altzugarai, Miguel Angel Maia, Zalain Zokoko Xabier Plaza Garbisu txapelduna eta Jon Sanzberro etxalartarra, bigarrena.

Aitor AROTZENA | LESAKA

Maiatzaren 8an jokatu zen Etxarri Aranatzan, Nafarroako Arrastoko Ehiza Zakurren bigarren Txapelketa. Herriko ehiztarien ordezkaritza zabala izan zen eta Zalain Zokoko Xabier Plaza Garbisu suertatu zen Nafarroako txapeldun, Jai zakurrarekin 153 puntu eskuratu ondotik. Bigarren postua Etxalarko Jon Sanzberrok eskuratu zuen, Bat zakurrarekin. Herriko

bertze ehiztariak ere parte hartu zuten: Xabier Almandoz Maiak Jai zakurrarekin; Agoitz Altzugarai Maiak Lur zakurrarekin eta Miguel Angel Maia Mitxelenak

Pinto zakurrarekin. Denora 42 zakurrek parte hartu zuten lehiaketa eta basurde arrastoa segitu behar izan zuten, beraien lana aztertu zuten epaileen begiradapean.

Sailkapen orokorreko lehen hiru postuak Burgo koadrila bateko kideentzat izan ziren. Nafarren artean, Bortzietako ehiztariak gailendu ziren.

LEHIAKETA → SANFERMINETAKO KARTELA

Iraia Etxabideren kartelak iragarriko ditu bestak

TTIPI-TTAPA

Iraia Etxabide Etxeberria herriko gaztearen kartelak iragarriko ditu aurten Sanferminak. Sanferminak lanarekin nagusitu da kartel lehia-

ketara aurkeztutako 11 lanen artean eta 500 euro eskuratuko ditu. Programako azal lehiaketa ere Iraia Etxabidek irabazi du Neska-mutilak lanarekin (8 aurkeztu ziren)

eta bertze 500 euro irabazi ditu. Programaren gibebeko azalaren lehiaketa, berriz, Iraia Ines Elizalde Benitez irabazi du, Zapata

lanarekin. Herrian Lehen Hezkuntzan ari diren ikasleek 39 lan aurkeztu zituzten. Eskola-materiala erosteko 300 euroko bonoa eskuratu du.

FLASH

Parrokiako erregistroa kontsultatzeko aukera

San Martin Parrokiako erregistroa digitalizatu eta euskarri informatikora pasatzeko lana egin du Salvador lantzik eta informazio hori, 1900. urtera arteko jaiotz-, ezkontz- eta heriotz-agiriak hain zuzen, kontsultatzen ahal da Kultura eta Turismo Bulegoan, asteleheneetik ortziralerara, 08:00etatik 13:00etara. Ordua aitzinetik eskatu behar da 948 638007 telefonoan edo kultura@lesaka.net helbide elektronikoan.

Berdintasunari buruzko margo lehiaketa Irainen

Berdintasuna gaitzat hartuta maiatzaren 31n margo lehiaketa antolatuko du Irain Guraso Elkarteak Udalaren laguntzaz, ikastetxe ikasleei zuzendua.

Akordeolarien kontzertua

Akordeolari taldeak kontzertua eskainiko du ekainaren 4an, ortziralean 20:00etan Alhondigako arkupetan.

Haurrentzako eskulan tailerra

Emagin taldearen eskutik haurrentzako eskulan tailerra antolatu du Arrano elkarteak ekainaren 5ean, 11:00etan komentuan.

ZUBIONDO
Jatetxea
lagardotegia jatetxea
Alasta karrika
BERA NAFARROA

Lentena
Banantzen
Mertzen
Jantzi-epika
Purri-Itzak
KALTOGORRIA
Beneke plaza 10 31770 Lesaka
T. 948 627 514

BOZZ-AID
JUVANBERIA
0948 61 1 340 0000 • LESAKA

XATURETXEA
ZAJA
JATETXEA
T. 948 637 260 • LESAKA

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 6AN

Argazki zaharrekin egindako liburu-DVDa aurkeztuko da Gasna Feria Egunean

Eduarne Elizagoien eta Maite Irisarrik egin dute

Irune eta Itsaso

Ekaineko lehenbiziko igandean ospatuko da Gasna Feria Eguna, ekainaren 6an. Altxata Kultur Taldeak antolatuta, XVIII. edizioa izanen da:

- Goizean Altxatak taloen postua jarriko du eta sormen tailerra ere egonen da haurrentzako.
- 10:30ean artisauen produktuak frontoian.
- Gasna lehiaketa: Baztan, Malerreka eta Bortzirietako gasnagileek 11:00etarako aurkeztu beharko dituzte gasnak.
- 12:15ean trikitixa eta perkusio emanaldia, haur eta gaztetxoek eskainia.
- 13:30ean gasna lehiaketako sari banaketa.
- 14:00etan herri bazkaria frontoian. Txartelak maiatzaren 30a arte He-

rriko Ostatuan eta Elutsan egonen dira salgai. • 18:00etan herriko dantzarien saioa.

• Egun osoan herriko emakumeek egindako eskulanak Kultur Etxean ikusgai egonen dira.

Nobedade nagusia, halere, *Etxalarko xoko eta jendeak erretratueta* liburua eta DVDa izanen dira. Eduarne Elizagoien eta Maite Irisarrik egin dute eta Gasna Feria Egunean salgai egonen da.

Lan eskaintzak

Igerilekuan lan egiteko jende bila dabil Udala, eta nahi duenak maiatzaren bukaera arte izanen du apuntatzeko epea, udaletxean. Bi hilabete tarako izanen da lana, 11:00etatik 20:00etara eta sorosle ikastaroa egina izatea eskatuko da.

LANGABEZIAN DAUDENENTZAT

Patxiku Irisarri alkatuek erran duenez, he-



ARGAZKIA: AITOR NARBAIZA

Andre Mari Dantza Taldekoak Oskorriren proiektu berrian

Nacho de Felipe Oskorriko abeslari ezagunak kanta batzuk grabatu ditu herriko dantzariekin. Mari Cruz Goñi irakaslearen gidaritzapean, Baztango Mutildantzen pausoeekin sortutako muxikoak grabatu zituzten Andre Mari Dantza Taldeko kideek maiatz hasieran. Bideoa hainbat dantza-taldeei banatuko diete, haiek ere ikas dezaten. Oskorriren proiektu berriaren barrenean sartzen da egitasmo hau. Nacho de Felipek azaldu zuenez, «CDak, DVDak eta liburuxka batek osatuko dute lan berria; jendeak musika entzun, ikusi eta liburuxkan argibideak irakurri dantzak ikasteko». De Felipe «hagitz gustora» agertu zen Etxalarren egindako grabaketarekin eta gonbidapena luzatu zien dantzariari ekainaren 19an Zugarramurdiko Sorginaren egunean, euren emanaldian dantzatzu parte hartzeko.

rriko hainbat lanetan aritzeko lau langile behar dira hiru hilabete eta erdiz. Langabezian egon beharko dute, eta lehen tasuna herritarrek izanen dute. Langabezian noiztik dauden ere kontuan hartuko da eta denbora gehien daukanari emanen zaio lehentasuna. Euskaraz jakitea ere beharrezkoa da.

Bikote bateko bi kideak apuntatuko balira, bat onartuko litzateke. Izen-emateko epea ekainaren 4ko 14:00etan itxi-ko da.



ARGAZKIA: MIREIA MARTINEZ

Erraldoiak Hondarribian

Hondarribiko erraldoien kontzentrazioan parte hartu zuten Etxalarko erraldoiek hilaren 15ean. 48 erraldoi bildu ziren, eta herriko ordezkariak Xabier Berrueta, Xabier Etxarte, Oier Iturria eta Unai Otazo izan ziren.

antxordoki
ILKAPINHEGIA eta ESTETIKA

aparatu berria!
Eragitu gure deskontuak
termodinulazioaren bidezko tratamenduetan

Tratamenduak termodinulazioaren bidez:
- Zelaia - Emekukoma
- Tonifikazioa - Sabelondoa

Tratamenduak termodinulazioaren bidez:
- Gelatza - Bihurte
- Tonifikazioa - Post-erabate

Aurpegiako tratamenduak
Tratamendu berria

Solarium
Laser

Albistur 39 LESAKA
tel. 948 637 703

LEGARRA

- EGUNKARIAK
- ALDIZKARIAK
- LIBURUAK
- OPARIAK
- TABAKOA
- FOTOKOPIAK
- ENKUADERNAZIOAK
- PLASTIFIKAZIOAK
- FAX PUBLIKOA

TESTU LIBURUAK ENKARGUZ

Tfnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 • LESAKA

USOA
nekazarri kooperatiba

ganaduarentzat
pentzurik egokiena

Tel: 948 635 214 • ETXALAR

Javier Manterola
Tolosa instalatzailea

Iturgintza • gasa
kalifikazioa

Tfnoa: 629449602 • BERA

IGANTZI

AISIA → ATERALDIA

Iñurrieta Bodegara joateko irteera antolatu du Biltokik ekainaren 5ean

Izena emateko epea igande honetan bukatuko da

TTIPI-TTAPA

Faltzesko Iñurrieta Bodegara joateko irteera antolatu du Biltoki Elkartek ekainaren 5era, larunbata. Egun osoko ateraldia izanen da eta joan-etorria autobuzez egingen da.

08:00etan aterako da autobusa, aparkalekutik. Bidean Lorentxo ostatuan gosaldu egingen dute. Gero Erriberriin gelditu eta herria ikusteko aukera izanen da. Handik, 13:00 alderako Iñurrieta Bodegara ailegatzea espero dute. Behin harat ailegaturakoan, bodega bisitatu dute eta ondoki

bazkaria izanen da. Handik bueltan, 19:00etan abiatuko dira.

IZEN-EMATEA

Biltokiko bazkide direnek 35 euro ordaindu beharko dituzte egunguziko gastuengatik, eta bazkide ez direnek, 40 euro. Izen-emateko epea maiatzaren 30ean bukatuko da, eta Biltokin egin beharko da. Jende kopuruan ere muga paratu dute antolatzaileek, eta gehienez 50 lagun apunta daitezke.

Lehen Jaunartzea

Joan den igandean, maiatzak 23, lau neska-mutikok egitekoa zuten Lehen Jaunartzea: Beñat lantzi Irigoienek, Ainara Burgete Migeleñak, Aroa Canabal Etxartek eta Maitane Agerre Iparragirrek.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Larunbatean Aurizberrira kantatzera

Hurrengo hitzordua Aurizberrin egin du Igantziko Abesbatzak. Hala, larunbat honetan, maiatzak 29, harat joanen dira kontzertua eskaintzera. 16:00etan abiatuko dira autobuzez aparkalekutik, eta emanaldia 20:00etan hasiko da. Hango abesbatzarekin ere kanta bat abestuko dute. Kontzertuaren ondotik, Aurizberriko Haizea jatetxean afalduko dute eta 00:30 aldera bueltarako autobusa hartu. Edozeinek izanen du Aurizberrira joateko aukera eta autobusa bete arte izena ematen ahal izanen da telefono hauetako batera deituta: 647 841988 (Blanka), 608 935282 (Roberto), 699 261575 (Gema) eta Iñaki (658 743363). Hori bai, apuntatzeko azken eguna ortzegun hau, maiatzak 27, izanen da. Truke bat izanen da, gero azaroaren 6an hangoak etorriko baitira Igantzira.

AISIALDIA → PARROKIAK ANTOLATUTA

Eliza garbitzaileentzat Erriberrira ateraldia ekainaren 17an eginen da

Joan ezin
dutenentzat
berendua
izanen da

Nerea ALTZURI

Aurten ekainean da. Eliza garbitzeko sari gisa Erriberrira ateraldia ekainaren 17an izanen da. Egun pasa hori egin ezin dutenentzat, berriz, ekainaren 14an Zahar Txokon berendua egingen da.

Urteak dira, Eliza hain garbi edukitzeko herriko 176 familiak egiten duten lana eskertzeko, Parrokiak ateraldia antolatzen duela. Igantzin ere apezaz bera izanik, igantziarrekin batera egin ohi da bidaiaria. Euskal Herrian barna hainbat ateraldi egin izan dira eta kasu honetan ere, autobusa eta egun guziko gidaria Parrokiak ordainduko ditu eta gainerakoa, eguneko bazkaria eta bi-

sitak egiteko sarrerak, joaten den horren kontura izanen dira (25 euro).

Autobusa 07:45ean herriko aparkalekutik aterako da, eta bidean Noainen gosaldur ondolik, Erriberrira ailegatuiko dira. Han Santamaria Eliza eta Nafarroako Erregeen Gaztelua bisitatuko dituzte. Ondotik, San Martin Unxeko bodega bat ikusi ondotik, herri horretako jatetxe batean bazkalduko dute. Bazkal ondotik, herriko punturik garrantzitsuenak bisitatuko dituzte, tartean, La Oliva monasterioa. Eta horrela akabera emanen zaio ateraldiari.

Bidaiaria etxe bakoitzetik nahi duen guztia joan daiteke, eta egunetan bertan arrazoi bategatik edo berteagatik izen emandako hori ezin bada joan, ordezkaria bidal dezake.

Bidaiari parte hartu ezin duten herritar horiek



ARGAZKIAK: MARTIN LEGARRA

2004an Bilbora –goiko argazkian– eta 2005ean Erronkarira –beheko argazkian– egin ziren Eliza garbitzeko ateraldiak.

Zahar Txokon berendua izanen dute. Kasu honetan, ordea, familia bakoitzetik lagun bat joan daiteke.

IZEN-EMATEA

Berenduan eta irteeran izen-emateko epea, igande honetan, maiatzak 30, akautuko da. Herriko apezari, Martin Legarrari, deitu behar zaio (948 634030). Hortaz aparte, Erriberriko ateraldirako 25 euroko ordainketa ere aste honetan banku bidez egin behar da.

Lasterkarako afizioa

Badela zaletasuna ezin da ukatu. Batzuk betidanik parte hartu izan dute errepede nola mendiko lasterketetan. Berriz batzuk duela gutti hasi dira. Señor baitako Daniel Iparragirrenen kasua horixe da. 27 urteko gazte honek duela hiru urte Behobia-Donostia lasterketa egin zuen. Hortik gustatu eta segitzen du. Eta Urdazubiko Bestetan, urtero antolatzen den Kontrabandisten Lasterketan laugarren postua lortu zuen. 10,5 kilometro-

ko ibilbidea 43 lagunek egin zuten. Danirekin solastuta, berak dio ez dela hainbertze txapelketa edo lasterketetan ibiltzen... Tarteka izaten duen har hori asetzeko baikik. Lanetik atera eta asietan hiru aldiz entrenatzen omen du. Berriki berako Maratoi Erdian ere parte hartu du.

Baina aipatu moduan, gehiagok ere eskualdeko zein urrunagoko lasterketetan parte hartzen dute: Mikel Altzuri, Jaber Iparragirre, Xabier Iturria, Julen Oskoz...

DENDA

GOYA

UZTAILEAN LANGILEA JUBILATZEN DELAKO

DENDA TTIKITU BEHAR DUGU
%50
DESKONTUAK
eta %2ko deskontua Club mas por ti txartelarekin

GURE TXOLLOEN TXOKOA
Gaitzak - Gonak - Jauntziak
Kamisetak - Burdin tresneriak
Tsubaskeroak - Txamarrak
Alfonbrak - Blusak - Batak...

BETIKO PRODUKTUAK
Kortinen konfekzioa
Lanerako arropa - Toallak
Mandireak - Mantak
Edredoak - Nordikoak
Nordikoen fundak
Kapeluak - Euskal arropa
Lanparak - Menajea
Oparitzeko detaileak

EZ GALDU AUKERA HAU ETA ZATOZ GURE TXOLLOAK BILATZERA ZERBITZU PERTSONALIZATUA, KALITATE ETA PREZIO EZIN HOBEAN
KONPROMISORIK GABE, ZATOZ. EZ ZARA DAMUTUKO

Altzate, 5 - BERA
T. 948 630 083

ERROTAZAR

harategia

Berrako produktuak

Etegarra, 3 - BERA
Teli/Faxa: 948 630 088

BORTZIRIAK

GIZARTEA → BILERAK

Boluntario taldeen lana bultzatzeko biltzen hasi dira Bortzirietan

Ekainaren 8an bigarren bilera egingen da Beran

TTIPI-TTAPA

Boluntario taldeen lana indartzeari ekin diote Bortzirietan. Eta helburu horrekin lehenbiziko bilera egin zuten maiatzaren 13an Berako Herriko Etxean, Berako udal ordezkariak,

Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako teknikariek eta Lesakako Nagusilan eta Berako Elkarizan boluntario taldeetako kideek.

Lesakako Nagusilan taldeak adinekoei eskaintzen die laguntza eta Alonso Obeso buru dutela, hiruzpalau boluntario biltzen dira. Berako Elkarizan taldean ere adineko jendearekin ateraldiak antolatzen dituzte.



UTZITAKO ARGAZKIA

Bortzirietako Gizarte Zerbitzuetako teknikariak, Berako udal ordezkariak, eta Nagusilan eta Elkarizan boluntario taldeetako kideak.

Aipatu bileran, boluntario taldeen egoera aztertuzuten eta asmoa bitaldeak indarberritzea da eta, aldi berean, jende berria biltzea. Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik gogoratzen dutenez, boluntario talde hauek hainbat lan egin ditzake-

te eta norberak auker dezake bere denbora zertan eskaini: ezinduekin kanpaldiak, aisialdia eta denbora libre; beharra dutenentzat garrario zerbitzua eskaini; eskola laguntza; Saharako haurrak hartu; ospitalean laguntza eman; adinekoekin egon...

Bigarren bilera ekainaren 8an egingen dute Berako Gure Txokoa elkartearen. Boluntarioen zerrenda ere berritu nahi dute eta bilerara joateko interesa dutenek 948 635036ra deitzen ahal dute edo bertzelara, ssb@lesaka.net helbidera idatzi.



UDALEKU IREKIAK
* 3-7 urte bitarte

Aniztasuna
Euskara
Antzerkiak
Eskulanak
Jolasak
Txangoak



SORMEN ETA GORPUTZ TAILERRAK
* 8-12 urte bitarte

Olinpiadak
Ura eta Natura
Sukaldean esperimentatu
Birziklapena
Tailerrak
(txapa tailerra, kamixetak diseinatu...)

ARANTZA, BERA, ETXALAR, IGANTZI ETA LESAKA
Izen ematea: maiatzaren 31tik ekainaren 11ra (biak barne)
Informazioa: Dindaia Fundazioa, 948 277 620 / info@dindaia.com




AISIA → UZTAILEAN ETA ABUZTUAN

Udaleku irekiak antolatu dituzte Euskara Mankomunitateak eta Dindaia Fundazioak

Izena emateko epea ekainaren 11n bukatuko da

TTIPI-TTAPA

Ikasturtea bukatu eta uda ailegatzearekin batera, udaleku irekietan parte hartzeko aukera izanen dute neska-mutikoez Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesakan. Aurten ere, Bortzietako Euskara Mankomunitateak eta Dindaia Fundazioak antolatu dute eta uztailean eta abuztuan izanen dira.

Adinaren arabera, bi multzotan banatuko dira gaztetxoak. 3-7 urte bitartekoek euskara eta aniztasuna landu, eta antzerkiak, eskulanak, jolasak eta txangoak egingen dituzte, bertze-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Joan den urteko udalekuak Arantzan.

ak bertze. Kozkorragoak direnentzat, berriz, 8-12 urtekoentzat, eskaintza berezia egin dute, sormen eta gorputz tailerrak prestatu

baitituzte: olinpiadak, ura eta naturarekin esperimentatu eta jolas-tu, sukaldean esperimentatu, elementu birziklatuak sortu, tailerrak

(txapa tailerra, kamisetak diseinatu...) eta abar.

Arantza, Bera eta Etxalarren uztailaren 5etik 30era egingen dira udalekuak, eta Lesakan,

uztailaren 12tik abuztuan 6ra. Astelehenetik ortziratera, 10:00etatik 13:00etara izanen da.

IZEN-EMATEA

Interesatua dagoenak maiatzaren 31tik ekainaren 11ra bitarte eman beharko du izena, Dindaia Fundazioa deituta (948 277620 telefonora 10:00etatik 15:00etara) edo info@dindaia.com idatzita.

Ume bakoitzeko prezioa 70 eurokoa izanen da eta bi anai-arrebena 120 euro ordaindu beharko da. Hiru senide izanez gero, berriz, 150 euro. Dena den, ordainketa egin baino lehen, izena emateko deitu edo idatzi beharko da.

Taldea egiteko guttieneko haur kopurua zortzikoa izanen da.

Oraindik ez duzu probatu Elgorriagako Bainuetxeko ur gazietan flotatzea?
HAU DA ZURE AUKERA

ELGORRIAGA
BALNEARIO - BAINUETXE

IGERILEKU TERMALAN ERLAXAZIO ZIRKUITOA
bakarrik 10€ pertsonako
Igande arratsaldeetatik ostegun arratsaldeetara (bakarrik arratsaldeetan).
Eskaintzaren azken eguna: maiatzak 31

IGERILEKU TERMALAN ERLAXAZIO ZIRKUITOA,
BAZKARIA EDO AFARIA ETA FRESKAGARRIA EDO KAINA
25€ pertsonako astelehenetik ostiralera, arratsaldeetan
28€ pertsonako larunbat goiz eta arratsaldeetan eta igande goizetan.
Eskaintzaren azken eguna: maiatzak 31

BALDINTZAK: ERRESERBA EGIN
BEHAR DA. Ezin zaie bertze eskaintza
edo promozioei gehitu

Errotaldea z/g 31744 Elgorriaga (Nafarroa) Tel. 948 45 60 45 · www.balnearioelgorriaga.com

SUNBILLA

ERREPIDEAK → EKAINAREN 3TIK AITZINERA

N-121A errepidetik herrira sartzeko irtenbidearen kontra protestak eginen dira

Hilabeteko lehenbiziko ortzegunetan eginen dira

Jaione OTXANDORENA

Udala eta herritarrak ez daude ados N-121A errepidetik herrira sartzeko eta herritik ateratzeko arriskua murrizteko Nafarroako Gobernuak proposatu duen irtenbide teknikoarekin. Udaletik, bai errepide nagusiaren gainetik edo bai azpitik, bertez maila batean egitea eskatu zen, baina Gobernuak baztertu egin du eskari hori. Horren ordez, esperatzeko karrila eginen dute.

Erabaki honen kontra protesta egiteko bere garaian aipatu ziren mobilizazioak eginen dira. Pako Errandonea alkateak erran digunez,

«hilabeteko lehen ortzegunetan eginen dugu, lehenbizikoa ekainaren 3an. Ekainean eta uztailan ordu laurden bateko protestak izanen dira, 11:45etik 12:00-etara. eta hortik aitzinera ordu erdikoak. Egoera kezagarria da eta burrunba pixka bat atera nahi dugu».

Mobilizazioez gain, udaletxetik errekurtsioa bidali dute Herrilan Departamentura eta idatziaz ere igorri dizkiete Arartekoari eta Gobernu delegatuari.

Ur araztegi berria

2011rako prest izanen da ur-zikinaren araztegia. Urzikinak bildu eta tratamendu kimikorik gabe tratatuko ditu, eta 250 metro koadroko azalera hartuko duten hormigoizko hiru putzu edukiko ditu. Horren harira, Nafarroako Gobernuak lan



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Bortz neska-mutikoren Jaunartzea

Lehen Jaunartzea egin zuten herriko bortz neska-mutikok maiatzaren 9an: Aitor Etxalar Zugarramurdi, Asier Antuña Zelaieta, Zaira Gaztelumendi Jorajuria, Jon Iriarte Mikelperizena eta Gorka Antuña Zelaietak.

hauek ukituko dituzten ondasun eta eskubideen okupazioa presazkoa dela izendatua du. Lanen eskaintza ekainean eginen da eta obrak irail aldera hasi eta 14 hilabetez luzatuko omen dira.

Proiektuaren aurrekontua 1.408.581 eurokoa da, eta gastu horren %20 nafar guztiek ordaintzen duten saneamendu kanoaren bitartez finantzatuko da, eta gainerako %80 Toki Administrazio Departamentuak paratuko du, 2009-2012 Planaren bidez.

Ulibeltzak Elkartearen konponketak

Azken batzarrean erabaki zen bezala, Ulibeltzak Elkarteak egoitzan

moldaketa lanak egiteko asmoa du. Egoitza haunditzea ere pentsatu dute eta gastuei aurre egiteko, bazkideei urteko kuota igotzeaz gain, Nafarroako Kutxako Zuk aukeratu zuten erabaki proiektuan parte hartuko du.

Trinitate Eguna

Igande honetan, maiatzak 30, ospatuko da Trinitate Eguna Mendaurren. Herritar aunitzek dute egun horretan ermitaraino igotzeko ohitura eta aurten ere horrela izanen dela ziur gaude. Eguna mendian pasatuko duenik izanen da edo lagunartean bazkaria eginen duenik ere bai. Arratsaldean, Agerralderen eskutik musika izanen da Ariztagain akanpalekuan

Unai Bertizek ederki hasi du denboraldia

Maiatzaren 16an Unai Bertizek Endoian (Gipuzkoa) jokatu zuen txapelketan lehen postua lortu zuen. 125 kiloko zilindro zaharrarekin hiru minutuko bitxanda egin behar izan zituen. Unai 46 altxaldi eman zituen eta bigarrenari bi altxaldi atera zizkion. Aipatu behar da, eskualdetik bertez parte-hartzaile bat ere izan zela, Etxalarko Xabier Ariztegi. Orain Unai entrenamenduetan burubelarri sartua dago datorren uztailan, Iruñeko Sanferminetan jokatu den Nafarroako txapelketan parte hartzeko. Ea honetan ere emaitza ona lortzen duen.

TRINITATE EGUNEAN MENU BEREZIA

Urdaiazpikoa | Entsalada mixta
Txerri kostilla patata purearekin | Postre dastaketa
Ogia, ura, ardoa, sagardoa, kafea eta kopa

24€

IZEN EMATEA 948 450 540 • Maiatzaren 27a baino lehen

Kulturkari

Logotipoen diseinua
Tarteletzen diseinua
Triptuak, liburak, karpelak,
grabatuak, fakturak,
kartelak, egitekin
irudi karpelaketa

eskaintza berezia
komunikazio 9 gabe!

Ariztagain, 12 • 31760 Etxalar
Tf. 948 635 458
kulturkari@ortopi.net

UDALA → AZPIEGITURAK

Herriko Plazan losak apaindu eta pareta berri bat egiten ari da Udala

Espainiako Gobernuaren subentzioarekin eginen da

TTIPI-TTAPA

13.000 euro inguru hartu ditu aurten Udalak Espainiako Gobernuak herriz herri eman duen dirulaguntzaren bidez. Eta diru hori Herriko Plazan losak apaindu eta pareta bat berritzeko erabiliko du Udalak. Jose Mari Etxarteren enpresari esleitua dizkio Herriko Etxeak lanak eta hilabete eta erdiko epea du akitzeko.



ARGAZKIAK: MARKEL LIZASOIAN

Azken aldian egin diren obra batzuk ikus daitezke argazkietan.

IAZ ERE OBRAK

Joan den urtean ere hartu zuen estatuko subentzioa Udalak, 21.239 euro, hain zuzen, eta dirulaguntza hori Herriko Etxearen atzekaldeko bi terrazak konpontzeko, eta terraza azpikaldea, inguruko lurrak eta eskolako ataria txukuntzeko erabili zen.

2010eko aurrekontua

157.000 euroko aurrekontua onartua du Udalak 2010era begira, eta inbertsio nagusien artean, Herriko Ostatuan berritze lan batzuk egitea izan da.

Euskal Herriko Talo Txapelketa

Lerro hauek idazterakoan, ezin izan genuen jakin, iaz bezala, Euskal Herriko Talo Txapelketa irabazi ote duen, baina dakiguna da joan den larunbatean, maiatza

tzak 22, Oreretan (Gipuzkoa) egitekoa zen Euskal Herriko II. Talo Txapelketan parte hartzekoa zela Maria Mitxelena herritarra.

Gogoratuko duzue, baina Mitxelena izan zen iazko txapelduna.

OIZ
Mantenimendu lanak egiteko bi langile hartuko ditu Udalak

TTIPI-TTAPA

18.000 euro hartuko ditu Udalak Nafarroako Gobernuko Enplegu Zerbitzutik, eta diru horrekin, bi langile kontratatuko ditu hainbat mantenimendu lanetarako: herriko karririk eta paretak moldatu, bideak apaindu... Langileetako bat ofiziala izanen da eta peoia bertzea eta lau hilabetez ariko dira.

OBRA GEHIAGO

Espainiako Gobernuko E-Planaren bitartez hartuko den dirulaguntza, bertaldea, toki arriskutsuetan babes-hesiak paratzeko erabiliko da: Elutsako bidean eta Gaztainzabaltan, hain zuzen. Estatuko deialdi honetan 16.000 euro egokitu zaizkio Udalari eta obra hauek egiteko hiru eskaera egin bazituen ere, bakarrak aurkeztu zuen eskaerantz: Sasoi enpresak. Beraz, berak eginen ditu lanak. Lerro hauek idaztean, oraindik lanean hasi gabea zen, baina Alberto San Migel alkateak erran zigunez, maiatzean hastekoak ziren.

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pax. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUJN

Lanchas

PARKETAK - TARIMAK
KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA
ESTALDURA OROKORRAK

Bera - Tlfnoa: 948 630 735 - 407 406 781

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu

948 630 763 - Aitzate, 17 - BERA

BEINTZAKO OSTATUA

948 45 00 14

ORBELA

DONEZTEBE

KIROLA → OSPAKIZUNAK

Erreka Elkartearen Eguna eginen da ekainaren 5ean

Judo eta eskubaloiko ikuskizunak egunez eta gauez besta

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 5a besta eguna izanen da Erreka Kirol Elkartearentzat. Denboraldi bukaera dela-eta, Errekaren Eguna antolatu baitu aurrean laugarren urtez. Den den, bezperan ere izanen dira ekitaldiak.

EKAINAK 4, ORTZIRALA

- 20:00etan zineman, *Sanba* San Migelen Elbrus mendiko proiektioa.
- 22:00etan, Santa Luzia Plazan mus txapelketa.

EKAINAK 5, LARUNBATA

- 09:30ean kiroldegian, alebin eta infantil mailako mutil eta nesken eskubaloiko partidak.
- 12:00etan judo erakustaldia kiroldegian.
- 16:00etan, kiroldegian, jubenil nesken eta lehen go jokalarien arteko eskubaloiko partida. Nahasita ariko dira.
- Arratsaldean, frontoian, Herriarteko Pilota Txapelketako partidak.
- 17:00etan, kiroldegi-

an, jubenil mailako mutilak lehenagoko jokalarien kontra.

- 18:15ean, Errekako seniorrak, San Antonio, Bidasoa eta Anaitasunako jokalariekin osatutako taldearen kontra.
- Atsedendian, Dantza Taldearen saioa.
- 21:00etan, afari herrikoia Santa Luzia plazan. Txartelak Titi Ostatuan salgai eta ekainaren 2ra arte.
- Ondotik, gaupasa JALISKO BANDEkin.

Entrenatzaileen ikastaroa

20 lagunek hasi dute eskubaloiko entrenatzaileentzako ikastaroa. Horietatik hamahiru Errekakoak dira, bortz baztandarrak eta bi beratarak.

Niko Mindegia jokalaria hobereana

Nafarroako Eskubaloiko Federazioak ematen dituen sarien artean, Niko Mindegia 2009/2010 denboraldiko Ohorezko Mailako jokalaria hoberearen saria irabazi du. Baina horrez gain, Europako Txapelketan aritzeko Espainiako Federazioaren deia ere jaso du azken urteotan Portland San Antonio taldeko erdilaria den gazteak.



UTZITAKO ARGAZKIA

Mendi Abesbatzak kontzertua eskainiko du ekainaren 4an Elizan

Musikaz gozatu eta gozatuazteko asmoz, Mendi Abesbatzak bi kontzertu antolatu ditu. Lehendabizikoa ekainaren 4an, ortzirala, izanen da Doneztebeko Elizan, meza ondotik. Eta bigarrena, biharamunean, ekainak 5, Sunbillako Elizan, hau ere meza ondotik. Bi saio hauean Polifonia eta Folklore sailtako hainbat kantu eskainiko ditu, eta tartean bakarlariak eta musika tresnen laguntza ere izanen du.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Ameztia eta Jubilatuen Etxeak irabazi dute Pintxo Lehiaketa

III. Pintxo Lehiaketako epaimahaiaren sari ofiziala Ameztia Ostatuarentzat izan da, eta publikoaren saria, berriz, Jubilatuen Etxearentzat. Bi ostatuotako arduradunek, Jorge Iribarren eta Marimar Mindegia, maiatzaren 12an egindako ekitaldian hartu zituzten sariak, udal ordezkari, Fermin Fernandez Anapeh elkarteko presidente eta Felipe Lizardi Inurrieta Bodegako zuzendari komertzialaren eskutik. Aipatzekoa da 2.500 pintxo inguru saldu zirela hiru egunez. Eta Inurrieta ardo-lotearen zozketako sariduna Alejandro San Miguel izan zen.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Ahari lehiaketako sari nagusiak Beintza-Labaien eta Sunbillara

16 ahari aurkeztu ziren maiatzaren 7ko Udaberriko Ferian egin zen Malerrekako IV. Ahari lehiaketan. Eskualdean gehienak mutur gorriak badira ere, aurrean bortz mutur beltz aurkeztu ziren. Horien artean, **Beintza-Labai**ngo Angel Elizondok eraman zituen lehen eta hirugarren sariak (120 eta 50 euro). Bigarren saria, 70 euro, **Urroz**ko Eustasio Mariezkurrenak irabazi zuen, iazko irabazleak. Mutur gorrietan, 11 ahari aurkeztu ziren eta azken bi urteetan bezala, **Sunbillako** Pixarnekobordako Jose Bernardo Bazterrikak irabazi zuen lehen saria. Bigarren saria **Ituren**go Joxe Fermin Ariztegik lortu zuen eta hirugarrena **Doneztebeko** Olabideko Joxe Belarrak.



UDALA → NAFARROAKO GOBERNUAREN LAGUNTZAREKIN

Herriko lanak eginen dituzten hiru langile hasiko dira ekainean

Irailaren 15era bitarte hainbat lan egin beharko dituzte

Joseba URROTZ

Gezurra dirudi denbora nola ari den pasatzen. Langabetuak kontratatzeko deialdia atzo egin zela ematen du eta dagoneko aurtengoa ere martxan dago.

Aurten, iaz bezala, hiru langile hartuko dira, ofizial bat eta bi laguntzaile. Kontratuaren iraupena, ordea, luzexeagoa izanen da, hiru hilabetekoa: ekainaren 15etik irailaren 15era ariko dira.

Egin beharreko lanen artean, Iturriotzen dagoen «legez kanpoko» zabortegia garbitzea dago, baita Teilegiko bide zaharraren hasiera hormigoitzea ere. Eta hainbat bide ere garbitu beharko dira.

Zabortegia garbitzea izanen da segu-



ARGAZKIAK: JOSEBA URROTZ

Zuhaitz artean, ez da akaso, ongi ikusiko, baina Iturriotzeko zoko hori hondakinez bete da.

raski lanik zailena, hainbat lagunengatik utzikeriak hori baitakar. Ea poliki-poliki ikasten dugun hondakinak bere lekuan botatzen eta ez erretzea eta bide bazterretan.

Osasun Zentroa

Osasun Zentroko hain-

bat leiho eta pertsiana hondatuak daude, eta horiek konpontzeko laguntza eskatu zitzaion Nafarroako Gobernuari bere garaian. Eta honen onartu egin du eskaera eta %100ean ordainduko du, alegia, 6.340 euroko aurrekontua duen lana Nafarroako

roako Gobernuaren gain joanen da osoz osorik.

DONEZTEBE

Ibilgailuaren Azterketa Teknikoak egiteko zentroa udan zabalik

TTIPI-TTAPA

N-121A errepidean, Irunerako bidean, Doneztebeko Ibarburu jatetxea eta gasolindegia dauden inguru horretan IAT edo Ibilgailuen Azterketa Teknikorako zentroa eginen da laster. IAT zentro berria modernoa eta kalitateko teknologia berriekin hornitua izanen omen da, eta gidariei erosotasuna eskainiko diena. Azterketak egiteko bi lerro edukiko ditu eta badirudi, uda honetatik aitzinera martxan egonen dela. Jatorri alemaniarra duen TÜV Rheinland Navarra S.A. enpresak kudeatuko du.

BEZERO AGURGARRIAK

Gasa eta elektrizitate kudeaketak egiteko Iberdrolako Puntu berri honetan aurkituko gaituzue:

AMAIUR ALTZARIAK
Rosa Seminario, 13 - DONEZTEBE
T. 630 77 96 36

Astelehenetik ostiralera
09:00etatik 14:00etara

www.iberdrola.es

DIA

Doneztebe

ANIMA ZAITEZ!!
Etorri denda ezagutzera

IREKIERA ekainean

Amezli berri kalea, 1
31740 DONEZTEBE
T. 948 451 672

ITUREN

AISIALDIA → BESTA EGUNA MAIATZAREN 30A

Trinitate Eguna ospatuko da igande honetan Mendaurko kaxkoan

Eguerdian enbaltseetan bazkaria eginen da

Arkaitz MINDEGIA

Besta eguna izanen dugu asteburu honetan, Mendaurko Trinitate Eguna ospatuko baita igandean, hilak 30. Goizez Trinitate ermitan mezak izanen dira urtero bezala eta eguerdi aldera enbaltseetan bazkaria eginen da Ibintza Kultur Taldeak antolatuta. Jende aunitzek ospatzen dute egun hau eta iturendarrek ez ezik, aurtiztarrek, zubietarrek eta kanpoko jendeak ere bazkari eder bat egiten dute urtegietan. Ilunabarrean herriko plazan dantzaldia izanen da.

Guraso Elkartearen Sortzen

Ikasbatuaz enbaltseetan
Eskolako Guraso Elkartearen Sortzen Ikasbatuaz elkartearen sartu da. Euskal Herri osoko ikas-tetxe eta ikastola publi-



ARGAZKIAK: EKIÑE MINDEGIA

Eskolatik ere Mendaurrera

Aspaldiko ohitura da eskolako ateraldietan Mendaurrera irteera egitea. Eskolako ttikienak urtegeraino autoz, eta gainontzeak herriko hasita Mendaurrera igo ziren joan den maiatzaren 20an. Eguraldi ederra lagun izan zuten eta bistan denez hagitz ongi pasatu zuten.

koen arteko elkarlana sustatzen du Sortzen Ikasbatuazek. Baina aldi berean, zerbitzuak eskaintzen ditu: aholkularitza juridikoa, guraso

eskolak eta prestakuntza jarduerak irakasleendako.

EKITALDIAK

Hainbat ekitaldi pres-

tatzen ari da Guraso Elkartearen azken aldia. Joan den maiatzaren 14an artopil tailerra antolatu zuten eskolako haur guzientzat. Eta ortzegun

honetarako, maiatzak 27, txorimalo tailerra antolatzen ari dira. Ikasturte bukaerako bestarako ere ideiak pentsatzen hasia da dagoeneko.

Ez zuen bere eguna izan Erasunek

Maiatzaren 9an Azpeitiko zezen-plazan 500 bat lagun bildu ziren Ander Erasun eta Xabier Zalduaren arteko apustua ikustera.

Zalduak irabazi zuen, nahiz eta Ander izan irabazteko favoritoa. Izan ere, Zumarragakoak bere maila eman zuen aizkoran eta fresko hasi zen lasterka. Anderrak, ordea, apustuan hasi eta handik guttira bere gorputzak aitzinera egiteko nahiko lan zuela nabaritu zuen. Poliki-poliki aitzinera segitu zuen eta 11 buelta ere egin zituen lasterka. Baina azkenean, proba bertan behera utzi behar izan zuen. Zalduak 83 minututan egin zuen bere lana. Zorionak bie eta animo!

APARAN, S.A.
BRIKOLAJA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagaiak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab.



Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

m
bentamiguel
denda, jatetxea eta ostalua

Ongi zaindutako sukaldaritza
Menuak aukeran

Tabakoa
Likorrak
Janaridenda
Urdategia

Ibardingo Lepoa - 948 631 209

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 6AN

Lehen aldiz Gazta Lehiaketa eginen da Besta-Berri egunean

Txapeldunak Herriko Ostatuan afaria irabaziko du

Fermin ETXEKOLONEA

Egun seinalatua izaten da Besta-Berri Eguna herrian. Goizean meza izaten delako, eta arratsaldean Udalak berendua eskaintzen die lako herritar guztiei. Aurtan ere hala eginen da, ekainaren 6an. Baina berrikuntza bat izanen da: lehen aldiz herriko gazta lehiaketa eginen baita.

Udalak gaztak erosi eta berendurako erabiliko ditu gero, baina epaimahai baten bidez, aurkezten direnen artean, gazta onena zedin den ere aukeraturiko da.

Herritarrei parte hartzeko gonbitea luzatu die Udalak, eta norbait interesatua egonez gero, Herriko Etxera dei dezake. Udala, bere aldetik, jendea animatzen ere saiatuko da.

BI SARI

Lehen saria Herriko Ostatuan afaria izanen da, eta bigarrena, Herriko Ostatuak emandako bi botil ardo.

Gazta lehiaketaz gain, herriko gazteak trikitixarekin bazterrak alaitzen ibiliko dira.

Garbitzaile postua

Herriko Etxea eta medikuaren kontsulta garbitzeko Udalak egingdako lehiaketan, herriko hiru emakumek eman zuten izena, eta horietan, Lurdes Elizalde Mitxelenarena aukeratu du Udalak, berea

izan delako eskaintzarik onena.

Urtebeteko kontratua eskainiko zaio Lurdesi, eta aurrekoan aipatu bezala, udal bulegoak astean bi aldiz garbitu beharko ditu eta medikuaren kontsulta egunero.



ARGAZKIA: ION LEIZEAGA

Arrate Estetika Zentroa ekainaren 1etik aurrera zabalik

Ekainaren 1ean zabalduko du Arrate Leizeaga herritarrek Arrate Estetika Zentroa Donezteben (Intzakardi, 7). Baina aurretik, larunbat honetan, maiatzak 29, inaugurazioa izanen da luntx txiki batekin. 17:00etatik 20:00etara egonen da bere lantoki berrian eta herritarrei joateko gonbitea luzatu die. Aukera zabaldu eskainiko du Arratek bere zentroan, bai emakumeendako, bai gizonezkoendako.

EUSKARA

Abizenak euskalduntzeko kanpaina abiatu du UEMAK

TTIPI-TTAPA

Guk abizena, eta zuk? lelopean abizenak euskalduntzeko kanpaina paratu du abian UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak. Hala, «bere izanarekin koherente izateko eta abizenak euskalduntzeko» deia egin die euskaldunei. Horretarako egin beharreko urratsak hauek dira: lehenbiziko, erregistro zibilera edo bake epaitegira joan eta abizena euskal grafiaz paratu nahi duzula erran, eta han ematen duten eskaera orria norbere datuekin bete behar da. Agiri hauek eraman behar dira: nortasun agiria- ren fotokopia—adinez nagusia ez bazara, gurasoena ere behar da—; hitzez hitzeko jaiotza ziurtagiria—epaitegian eskatu beharrekoa—; errolda agiria—udaletxean eskatu, eta adinez nagusia ez bazara, gurasoena ere behar da—; familia liburua- ren fotokopia—ezkon- duta bazaude edo seme-alabarik izanez gero—; eta seme- alabaren nortasun agiria- ren fotokopia—16 urte- tik gorako seme- alabak izanez gero—. Gogoratu, gure esku- aldean sei direla UE- MAren barne dauden udalerriak: Arantza, Areso, Bera, Etxalar, Goizueta eta Leitza.

TNC PUERTAS NUEVA CASTILLA

AGENTEA ANTTON LEGORBURU GOÑI

Ate berriak kolokatu eta reparazio lanak

Mugikorra: 670 497 485 • Tailerra eta faxa: 943 630 774

zalaín
JATETxea · RESTAURANTE

Zalaín auzoa z/g
31780 Bera
T. 948 631 106
w. www.zalaín.com

BERTIZARANA

OSPAKIZUNAK → GAZTEEK ANTOLATUTA

Bertizarana Eguna ekainaren 5ean eginen da Narbarten

Gauean dantzaldia izanen da Trikidantz taldearekin

TIPI-TTAPA | NARBARTE

Bertizaranako gazteek antolatuta, Bertizarana Eguna eginen da ekainaren 5ean, larunbatarekin. Urteak dira hiru herriak –Narbarte, Legasa eta Oieregi– elkartu eta bailara bezala bizirik daudela adierazteko beste hau antolatzen hasi zirela, eta aurtengoa ere helburu berarekin prestatu dute.

EGITARAUA

- 09:00etan, suziriak eta gosaria.
- 09:30ean, dianak herri guztietan.
- 10:00etan, soka zirkuitua, BKZren eskutik. Honetan parte hartzeko, aste bat lehenago apuntatu behar da. Legasan apuntatzeko orria elkartean dago eta Narbarten dendan.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Goiko argazkian, dantzariak erraldoiekin eta behekoan, neska kuadrilla Kinkillo ostatuan, aski umore onean. Joan den urteko Bertizarana Eguneakoak dira.

- 11:00etan, krosa.
- 12:30ean, Baztango gaiteroak: gaita dantza, fandangoa...
- 14:30ean, bazkaria.
- Bazkal ondotik, bertso saioa Jon Elizetxe eta Julen Zelaietarekin.
- Ondotik, dantzaldia

OHARRA

BKZren soka zirkuituan parte hartzeko astebete lehenagotik apuntatu behar da: Legasan elkartean dagoen orrian, eta Narbarten dendan.

AGERRALDE akordeoi-lariarekin.

- 18:00etan, sokatira.
- 21:00etan, dantza saioa: dantza jauziak, muxikoak eta dantza herrikoiak guztientzat txistu soinuekin.
- 22:00etan, afari mokadutxoa plazan.
- Ondotik, gaupasa, TRIKIDANTZ taldearen eskutik.

BAZKARIRAKO TXARTELAK

Legasan bazkarira apuntatzeko epea maiatzaren 25ean, asteartea, akitzekoa zen eta horretarako Egoitz Hernandorena edo Jose Jabier Indabereri 25 euro ordaindu behar zitzaizkien. Narbarten, ordea, Herriko Ostatuan edo dendan apuntatu behar zen.

elVelocimetro.com

Gidatzeko baimena internet bidez lortzeko lehenengo autoeskola. Zure neurira eta zauden lekuan zaudela.

www.elvelocimetro.com

testak hiztegia
bideoak azferketa
liburua praktikoa

50€ + klase praktikoak

LEGASA

KONTZEJUA → LAN ESKAINTZA

Bi langile hartuko ditu Kontzejuak herriko hainbat lan egiteko



Gazteek ederki pasatu zuten sagardotegian.

Ekainaren lehenbizian hasiko dira langile berriak

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 1ean bi langile hasiko dira lanean herriarentzat. Hainbat eginbehar izanen dituzte: bideak garbitu, gauzak moldatu eta bai apezaren etxeko obran lagundu ere. Orohar, herria txukun mantentzea izanen da euren egitekoa.

Gazteak sagardotegian

Argazkian ageri den gaztekuadrilla martxoan, Hernaniko Iparragirre sagardotegira joan zen. Oso giro onean igaro zuten eguna, baita gauaren zati handi bat ere.

Marka bereko bi erloju aurkitu dira

Bi erloju agertu dira kalean, soziedade inguruan. Biak marka berekoak dira, bat plateatua eta bertzea beltza. Norbaitek galdu baldin bado, Legasako elkartera joan dadila, han argibide gehiago emanen zaizkio-eta.

Ekaina
Junio

5

2010

Bertizaranako III Herri Krossa

Narbarte / 7,5 km

www.bertizarana.net

Ordua
Hora

11

Goizez

LAGUNTZAILEAK / COLABORADORES

Noticias
Eres lo que lees

ttipi-ttapa

AROTXA
RESTAURANTE JOTETXEO

Hostal Bertiz

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

ESTHER
LORE-DENDA

NARBARTEKO
HERRIKO OSTATUA

can

PANPOX
Ileapaindegia

NARBARTEKO
DENDA

NARBARTEKO
AROTZA

Bertizaranako Udala Legasako Kontzejua Narbarteko Kontzejua Oieregiko Kontzejua



EZKURRA

GIZARTEA → MEMORIA HISTORIKOA

Gure inguruan lurperatutako makien gorpuak ikertuko dira

Hiru lagun
gorpuak
Eratsungo
borda baten
inguruan
lurperatu ziren

Fernando ETXEBERRIA

Esan beharrik ez da-
go, 1936ko Gerra Zibi-
laren ondotik, Franko-
ren erregimena de-
seztatzeko mugimendu
haundia sortu zela. Eta
horretarako, frantziar
estatuan bizi ziren bo-
luntarioengana jo zen.
Baina hauetariko asko
engainatuak izan ziren,
hemen eurekin kolabo-
ratzeko jende asko ze-
goela ziurtatu baitzitza-

en. Babes hori zegoe-
lakoan, noizean behin
muga zeharkatzen zu-
ten. Gobernu politika-
ren aldeko gure esku-
aldeko jendeak, ordea,
makiak Olegi, Iruñari
eta Ezkain aldean ze-
biltzala salatu zion Guar-
dia Zibilari. Eta hauek
hiru harrapatu zituzten
gure bazterretan, eta hi-
rurak hil eta Eratsungo
borda baten ondoan lur-
peratu zituzten.

IKERKETA

Duela egun batzuk
Memoria Historikoa be-
rreskuratzeke lanean ari
diren lagun batzuk be-
re garaian gorpuak lur-
peratuak izan ziren to-
kian izan ziren, eta iden-
tifikatzeko eta gorpuzki-



Borda honen inguruan lurperatu zituzten makiak.

ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA


ak toki egoki batera
-herriko hilerria, adibi-
dez- eramateko ardura
hartu zuten.

Frontoiko obrarako dirulaguntza

TTIPI-TTAPAren aurre-

ko alean, Espainiako
estatuak frontoia berri-
tzeko emanen duen di-
rulaguntza 24.000 eu-
rokoa izanen dela aipa-
tu genuen, baina krisi
ospetsu honen eragi-
nez, subentzioa 16.000

eurokoa izanenda. Edo-
zein modutan, obrak
laster hasiko dira, eta
espero dugu herriko lo-
kalik garrantzitsuena
abuztuko festetarako
behar bezala prest ego-
tea.



- Eskopeten salmenta eta konponketa
- Ehiza eta arrantza goiak
- Ehiza baimenen tramitazioa

armadenda

andueza 

Paotxa Eraikina • Gorostlaga, z/g • Anaka Industrialdea
T. 943 66 72 67 - F. 943 66 71 91 • 20305 IRUN
c.andueza@euskalnet.net

KURSAALEAN EMANALDIA → EKAINAREN 11N

TKE ligaren aurkezpenean kantatuko du Umore Ona Abesbatzak

TKEren
ereserkiaren parte
hartu du herriko
koruak

guztiak ekainaren 5-6ko
asteburuan jarriko dituzte
ikusgai Ganbaran, goiz-
arratsaldez.

Xapo kalean



TTIPI-TTAPA

Hitzordu garrantzitsua egin du Umore Ona Abesbatzak ekainaren 11rako. Non eta Donostiako Kursoalean kantatuko baitu, TKE Trainereu Kluben Elkarrekin denboraldi berria aurkeztuko duen egunean. TKEk egin berri duen ereserkiaren grabaketan parte hartu du Umore Onak, eta horregatik abestuko du Donostian.

Ereserki horretako musikaren egilea Imanol Kamio hernaniarra izan da, Umore Ona Abesbatzarekin harreman handia duen musikaria, hain zuzen. Eta berak gonbidatuta parte hartu du ereserkiaren grabaketan, Hernaniko Ozenki eta Kantuz abesbatzeekin batera. Maiatzaren 11n grabatu zuten Hernanin ereserki hori, eta arraun denboraldia aurkeztzerakoan ere, hiru koruek kantatuko dute.

Eskulan erakusketa

Sormena landuz eta eskuei eginaraziz, aski gauza politak egin daitezke. Horixe bera erakutsi izan digute urteetan herriko emakumeek, ikasurte osoan egindako eskulanak erakusgai jarritakoan. Aurten ere, ikaslaroan egindako obra

Xapo herri aldizkariaren alea berria argitaratu berri dute Kultur Taldeak eta Udalaren euskara zerbitzuak. Hainbat gai interesgarri ageri dira: Umore Ona Peñak 50 urte, Txinoko jaiak, Saioa Taberna Tailandia eta Laosen barna, nikaraguarra Goizuetan, Goizuetan Jose Jabier Etxeberriaren begietan...

Bizikleta ibilaldia eta bertso barrikotea

Aurreko alean iragarri bezala, Iskibi kanpinak mendi bizikleta ibilaldia antolatu du larunbaterako, maiatzak 29. Bi ibilbide izanen dira aukeran: motza, 20 kilometrokoa eta 500 metroko desnibela duena, eta luzea, 32 kilometrokoa eta 1.000 metroko desnibela duena.

Izen-ematea egunean bertan, 09:00etatik aurrera eginen ahal izanen da, edo [campingiski-](mailto:campingiski-bi@gmail.com)



ARGAZKIA: AINARA NARBARTE

Maribel Lujanbio erretiratu dela

Urte asko eman ditu Maribel Lujanbiok eskolan lanean, eta zuzendaritzan ere denezte. Orain, ordea, erretiratzeko tenorea ailegatu zaio. Egindakoa gogoan, berriki merezitako omenaldia eman diote ikasle eta lankideek.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA / TESTUA: AINARA NARBARTE

Irratsaioa eskolatik

Bi urtetik behin egiten duen bezala, Xorroxin Irratia eskolan izan zen lehengo astean eta eskolako guztiei irratsaioak egiteko aukera eman zien. Aste batez iraun zuen irratiak eta egun bakoitzean 50 minutu inguruko saioa egin zuten, egun bakoitzeko talde batek. Talde bakoitzak informazio eta hainbat berri prestatu zituen eta eskolako ikaslerik zaharrenek, DBHkoek, teknikari lana egin zuten.

bi@gmail.com idatzita. Bost euro ordaindu-ta 10:00etan abiatuko dira kanpinetik.

BERTSO BARRIKOTEA

Aurten seigarren aldiz, bertso barrikotea egingen da kanpinean ekainaren 4an. 21:00etan hasiko da eta Sebastian Lizaso eta Iñaki Murua izanen dira gonbidatuak. Sagar-dotegiko menua izanen da, eta txartelak Iskibin eta Amaia kafetegian eskura daitezke (24 euro).

HOBETO bizi!

- Eskalerrak igotzeko aukiak, plataformak, igogailuak.
- Gurpil-aurkikak, makuluak, taka-takak
- Barne-egokitzak
- Higiene pertsonalerako tresna egokituak
- Janzen laguntzako tresnak
- Etxeko tresneria egokituak
- Segurtasunerako alaiak
- Telefono bereziak
- Errehabilitaziorako artikulak
- Joku bereziak

www.hobetobizi.net
Fuenterrabia, 37.aren parean • IRLN • T. 943 633 014

LEITZA

OSPAKIZUNAK → EUSKALTEGIAREN 20. URTEURRENA

Bertso saio haundia antolatu du IKAk larunbat honetarako

Ekainaren 5ean Musun bordaren aldeko kantu jaialdi ederra egingen da

TTIPI-TTAPA

Ez dago aspertzeko astirik. Aste Kulturala ekitaldiz gainezka doalako, eta ekainaren 12ra arte izanen delako non gozatu. Dena den, guztien artean, badira nabarmen- zeko ekitaldi batzuk: IKAREN festa eta Musun baserriaren aldeko kantu jaialdi, adibidez.

IKA-REN FESTA

20 urte bete ditu aurren IKA euskaltegiak eta urteurren hori ospatzeko, festa eguna antolatu du larunbat honetarako, hilak 29.

14:00etan kantu bazkaria egingen da Karrapen, eta ondotik, Muxikoak eta Ingurutxo. Baina ekitaldi aipagarria 19:00etan hasiko den bertso saioa izanen da. Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Sus-trai Colina, Amets Arzallus, Jon Maia, Unai Iturriaga, Aitor Mendiluze eta Aitor Sarriegi ariko dira kiroldegian.

Aurretik 10 eurotan eros daitezke txartelak eta egun berean, 12 eurotan. Leitzan, euskaltegi- an, Torrean, Maimurren eta Astizen daude; Goi- zuetan, Urrutinean; Ba- saburuan Aizarotzeko ostatuan eta Betelun Herriko Ostatuan.

TXARTELAK

Leitzan, bertso saiorako sarrerak Euskaltegi- an, Torrean eta Maimurren eros daitezke; eta kantu jaialdirako, Maimur eta Astizen.

MUSUN BASERRIAREN ALDE KANTUAN

Ekainaren 5ean, Musun baserriaren alde Euskal Herria Kantuz jaialdi egingen da plazan. Puntako abeslariak gonbidatu dituzte 18:00etan hasiko den emanaldira: Pantxo eta Peio, Erramun Martikorena, Patxi Saiz, Thierry Biskary, Jaione Olazabal eta Jon Gurrutxaga, Mahai inguruko taldea, Jeiki abesbatza eta Aurrerako dantzariak.

Sarrerak 15 eurotan toki hauetan eros daitezke: Leitzan, Maimur eta Astiz liburu-dendetan; Donezteben, Amez- tia tabernan; Elizondon, Kortarixar sagardotegi- an, Tolosan Bilintxen; Le- kunberrin Ainhoa taber- nan, Lakuntzan, Lagun artea tabernan eta Iru- ñan, Karrikiri elkarte- an.

Beste ekitaldiak

Horiez gain, Aste Kulturalaren barne, ekitaldi hauek izanen dira:

MAIATZAK 27, OSTEGUNA

• 20:00etan zinem- an: *Ama Dablam-09 espedi- zioari* buruz hitzaldia, Mendibil Mendi Taldeak antolatuta, Juan Maritoren, Asier Eseberri, Amaia Agirre eta Iñigo Loiolaren eskutik.



ARGAZKIA: SAGRARIO LASARTE

Oialde Txoko Sendavivan

Denboraldiari behar bezalako agurra emateko, Oialde Txoko elkarte- ko 30 gazte- txo Sendaviva natur parkean izan ziren maiatzeko bigarren asteburuan, bi begi- rale lagun zituztela. Eguraldia gorabeheratsua izan arren, jolas askotan ibili ziren, besteak beste, Boshleigh mendi errusiarra edo erorketa askea delakoan. Barde- ak ikusten zituzten altueratik. Gainera, parkean jende gutxi zegoenez, errepika- zeko aukera ere izan zuten. Animalia basatiak ere bertatik bertara ikusi zituzten, eta opariren bat edo beste erosi ondoren, etxerako bidea hartu zuten. Oso gus- tura igaro zuten eguna, eta berriro itzultzeko gogoz gelditu ziren.

MAIATZAK 28, OSTIRALA

- 17:00etan plazan: hau- rrentzako jolasak.
- 20:30ean *Irganari be- gira, etorkizuna irabaz- teko* Euskal Memoria fundazioaren aurkezpe- na Aurreran, Joxean Agi- reren eskutik.
- 23:00etan Peritzan, Okasientes taldearen kontzertua.

MAIATZAK 29, LARUNBATA

- 09:00etan plazan, Iru- so aldeko trikuharriak ikusteko mendi ateraldia, Mendibil taldeak antola- tuta. Iru-sora autoz.
- 00:00etan Atekabeltzen, Gazte Asanbladak anto- latuta kontzertuak: Erru- gabe, Sutan eta Fiemo.

MAIATZAK 30, IGANDEA

- 09:00etan gaiteroak.
- 11:00etan plazan, XXXII. artisau azoka.

MAIATZAK 31, ASTELEHENA

• 19:00etan liburutegian: *Teknologia berriak gizar- tean* Patxi Gaztelumen- diren hitzaldia.

EKAINAK 1, ASTEARTEA

• 20:00etan Aurreran: *Euskaldunak Ameriketan*, Josu Iztuetaren hitzaldia.

Merkatariak logo bila

Kaxkabeltza merka- tari, tailer eta tabernari- en elkarteak logoa au- keratzeko lehiaketa an- tolatu du. Ekainaren 15a baino lehen Maimur eta Astiz liburu-dendetan aurkeztu beharko dira marrazkiak, A4 formatu- an, atzekaldean izen-

abizenak jarrita. Gaia librea izanen da, baina elkartearen izena eta iza- na kontuan hartu behar- ko dira. Irabazleak bu- ruz-buruko pilota finale- rako bi sarrera eskuratu- ko ditu eta parte-hartzai- le guztien artean MP4 bat zozketatuko da.

EKAINAK 2, ASTEAZKENA

• 20:00etan Aurreran, *1512: Nafarroaren kon- kista* dokumentala eta so- lasaldia. Hizlaria Angel Rekalde izanen da.

EKAINAK 3, OSTEGUNA

• 20:00etan Aurreran: Anuntxi Arana euskal mi- tologiari buruz.

EKAINAK 4, OSTIRALA

• 20:00etan Aurreran, pa- goen mugarraketaren zergatia eta historia, Tre- palarien eskutik.

• 00:00etan Torrean: Ma- kulu ken-en kontzertua eta DJ-a.

EKAINAK 6, IGANDEA

• 19:00etan elizan, orga- no emanaldia.

EKAINAK 11, OSTIRALA

• 20:00etan *Sagarra eta sagastia* Jakoba Errekondoren hitzaldia Aurreran.

EKAINAK 12, LARUNBATA

• 19:00etan plazan II. Sa- gardo Eguna. Xehetasu- nak hurrengo alean.

ABACDEL
Analisi Klinikoak
ANALISI KLINIKOETAN ESPEZIALISTA

Hematologia • Tiroide
• Odol biokimika • Hormona-probak
• Erretuma probak • Tumor markatzaileak
• Diabetes • Gernu-analisiak
• GIB sermologia • Elkargaien immunoassai

Ramón González-Vallina
ANÁLISIS CLÍNICOS EN ESPECIALISTA

Itzingorta, 1 - behean • 20008 DONOSTIA • T. 943 210 872
abacdel@yahoo.es • www.abacdel.com

ARESO

EUSKARA → UDALA ETA EUSKARABIDEAREN ARTEAN

Ahozko tradizioa biltzeko 10 herritar elkarrizketatuko dira

Udalak eta Euskarabideak elkarrizketak adostu dituzte

Juana Mari SAIZAR

Herriko jendeari elkarrizketak egingo zaizkio ahozko tradizioa biltzeko asmoarekin. Euskarabideak eta Udalak hamar elkarrizketa adostu dituzte eta maiatzaren 12an egin zuten aurkezpena. Azalpenak Gaizka Aranguren eta Abel Labritek eman zituzten. Ikerketa honen helburua

Aresoko euskararen ezaugarriak eta XX. mendean bizimodua nolakoa zen jakitea da. Hau guztia eginda, ondare hau herriari gordea geldituko da hurrengo belaunaldiendako, Herriko Etxean kopia bat geldituko baita.

Bi txapel gehiago

Bi txapelketa irabazi zituen Anartz Olanok maiatzaren 8an, Abadiñoko binakako torneo goizez eta lurtzungo txapelketa arratsaldean. Orain Elgetako lau t'erdiko torneoan dabil, eta maila txukuna ematen.



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Ahozko tradizioaren bilketa aurkezteko udaletxean agerraldia egin zuten maiatzaren 12an.



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Birziklatzen ikasteko

Haurrak birziklapena nola egin eta zerekin egin behar den kontzientziatzeko asmoz, arratsalde-pasa antolatua zuten herriari Guraso Elkarteak. Hainbat hondakin bildu zituzten eta ondoren plazan guztiak bildu eta bereizi zituzten: gai organikoak, plastikoak eta beirak. Ondoren bakoitza birziklatuz, zer egin daitekeen erakutsi zieten.

ARANO

SEGA → LE FOSSAT-EKO SEGA EGUNA

Ixabel eta Ainhoa Ansa segalariak sarituak izan dira Okzitania

Larunbat honetan Ormaiztegin ariko dira

Maidier ANSA

Maiatzaren 15ean jokatu zen Okzitaniako Le Fossat herriari bertako 4. Sega Eguna. Ixabel eta Ainhoa Ansa izabela-iloak Euskal Herriko emakumezkoen ordezkari izan ziren eta txapelketa ongi baino hobeki moldatu ziren, lehen sa-

ri bana ekarri baituzten. Euskal Herriko ezizkiz, Gaskoinatik, Gironatik eta Fossatetik bertatik gerturatutako 32 segalarik parte hartu zuten, larunbat goizean hasi zen txapelketa. Lanak, ordea, ez ziren hemen eta nazioarteko txapelketa nagusietan izaten diren antzekoak izan. Segalari bakoitzak egoki ikusitako maila zabalera eraman behar izan zuten eta kontramailan ebakiz itzuli. Denbora neurtzearekin batera, bi mailen zaba-

lera, txukuntasuna eta moztutako sailaren zuzentasuna neurtu zituzten epaileek. Ixabelek ebaki zuten euskaldunetan aurrena.

Epaileek egindako neurketa guztiekin, sailkapen orokorra eman zuten lehendabizi eta gizon eta emakumeena dena nahastuta ematen zutela, Ainhoa bigarren gelditu zen, hau da, emakumeetan lehenbiziko.

Abilidade artistikoaren lehendabiziko saria, emakumeetan, Ixabelek era-



ARTXIBOKOA ARGAZKIA

Ainhoa eta Ixabel Ansa, iloba eta izeba, sega eskuan.

man zuten. Segakerari eta egindako lanari begiratu emandako saria izan zen hau eta, esan daiteke, berau izan zela sari nagusia.

Egindako lanarekin pozik, larunbatean, maia-

tzak 29, arratsaldean Ormaiztegin egindako taldeko herriarteko sega txapelketarako prestatu beharko dute izeba-ilobek. Txapelketa horretan Fossateko eta Gironako segalariak espero dituzte.



*Neurrira egindako leihoak
Diseinu eta modelo ezberdinak
Banakako soluzioak
Isolamendu termiko eta akustikoak
Energia aurrezpenak*

Ordoki industrialdea • ARIZKUN
Tel. 948 453 259 • Fax. 948 453 423
betikopvc@betikopvc.com
www.betikopvc.com

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa salmenta eta instalazioa



OBRA BERRIETAN ETA BERRIKUNTZETAN ESPEZIALIZATUAK

ALMANDOZKO BESTAK → EKAINAREN 2TIK 6RA

Herriko gazteek ikuskizuna eskainiko dute igandean

Ekainaren 2an egingen den ezki-jotzarekin eta altxaferoarekin hasiko dira bestak

etan Meza Nagusia. **13:00etan** luntxa frontoian. **Aldi berean**, herriko dantzariak eta txalaparta. **16:00etan** antzerkia. **18:00etan** pilota partidak. **20:00etan** tortilla lehiaketa. **Ondotik**, mokadua herri guziarendako, SALABERRIK alaituta.

ASTEAZKENA 2

13:00etan ezki-jotzea eta altxaferoak. **21:00etan** Baztan-Zopak Futbolin.

ORTZEGUNA 3 Besta Berri Eguna

08:00etan Aurora, Egunsentiko kantak, Bixentek alaituta. **12:00-**

ORTZIRALA 4 Haurren Eguna

11:00etan ginkana. **16:00etatik 20:00etara** haurrendako puzgariak. **18:00etan** txokolatada. **18:00etan** mus txapelketa. **20:00etan** Mutildantzak. **21:00etan** herri afaria. **00:00-**



ARGAZKIAK: RAMON APEZTETXEA

Ramon Apezetxearen zuzendaritzapean, urteak daramatzate herritarrek Aurorak kantatzen.

etan kontzertua: Ratakalba eta Komando Kastaña taldeekin. **Ondotik** INPEKABLES. **05:00etan** zinger jatea.

LAUNBETA 5

11:00etan mus txapelketako finalerdia eta finala. **14:00etan** zikiro

jatea SALABERRIK alaituta. **18:00etan** boneta jaurtiketa frontoian. **00:00etan** dantzaldia GAUBELA taldearekin. **05:00etan** zinger jatea.

IGANDEA 6

11:00etan gaiteroak herrian barna. **12:00etan**

Meza Nagusia eta Lehenengo Jaunartzeak. **17:00etan** gazteen arteko pikea. **18:00etan** Basaburuako haurren arteko herri kirolak. **19:00etan** urdaiazpiko eder baten zozketa SALABERRIK alaituta. **22:00etan** Gaixoa Ni, bestak agurtzeko.



igogailuen instalazioa
Erlategi Plaza, 8 bajo ELIZONDO (Na)
Tel.-Fax: 948 452557 M: 649 699 820/810
suteia@suteia.com



Gremio guziak koordinatuz eta proiektuaren ardura hartuz, zure igogailu instalatzen dizugu

CALVO PLADUR

Dekorazio eskulotarekin Gainalde desmuntagarriak PLADUR sistema

PIRRO

☎ 696 128 958



ttipi-ttapa
www.ttipi.net

ANTXITONEA
Tiketa

24 ingela bitartekoa - Apartaketa
Aire purtatu gela puztua - Hart muskela eta TH
Gela berria sukaldar eta banatzeriarekin



Brañio Iriarte 16, Elizondo • 948 581 807 • 948 581 853
antxitonea@terra.es • www.antxitonea.com

egoi bardot obregozo arkitektoa

679649789 elizondo · brañio iriarte 33, 1ºD · 31700
948250371 inuñea · irateko monastegia 62, 4ºC · 31011

MENDIALDE
idea



T: 948 453 060 · AMAJUR
www.mendialdea.com

BAZTAN

GIZARTEA → UDALA

Giza laneko langileek Elizondoko arkupeak margotu dituzte

Giza Lanaren proiektuak 10 urte daramatza Baztanen

TTIPI-TTAPA/ M. OTEIZA

Baztanen hamar urte daramatzen proiektua da Babesturiko Giza Lanarena. Horren bidez, gizarteaz baztertuak dauden edo lana aurkitzeko arazo larriak dituzten pertsonak kontratatzen ditu Udalak eta toki publikoak moldatzeko agintzen die. Hain zuzen, berriki egin duten lana, eta duela bi aste akitu zutena, Elizondoko arkupeak margotzea izan da.

Urteko hamar hila-betetan egoten da martxan eta bataz bertez, borts langile aritzen dira urtero lanean, gizarte langile batek koordinatuta.

Urte hauetan hainbat lan egin dira proiektu honi esker, eta Virginia Aleman alkatearen irudiko, horri esker «bi helburu garrantzitsu bete dira: «batetik, sozialki baztertuak dauden edo lana aurkitzeko arazo larriak dituzten pertsonen aukera eman zaie, eta bertetik, toki publikoak txukun edukitzea lortu da».

Baztandarren

Biltzarrean aldaketak

Elizondoko Foru Plazako obrek hainbat aldaketa ekarriko dituzte Baztandarren Biltzarrean. Lanak egiten ari den enpresak ezin izan du uztaila-

ren 18an eginen den bestarako obra akitua egonen dela ziurtatu, eta beraz, **aurtengo besta igandean bakarrik** ospatzea erabaki du Baztandarren Biltzarra Elkar-teak. Halaber, igandeko egitarau osoa –desfilea izan ezik–, Merkatuko Zelaian eta Laxo Frontoian eginen da. Azken honetan, orain arte plazan egoten zen karpa paratuko da eta han izanen da igandeko dantzaldia ere. Bazkaria, bazkalondoko jai eta bertze ekitaldiak, ohi bezala, Merkatuko Zelaian izanen dira. Eta larunbatean, Elkar-teak ez du ekitaldirik antolatuko, ez karpa irekiko ere.

Bertzalde, azken ordura arte besta kolokan egonenez, **ez da kartel lehiaketarik egin**, eta aurtengo besta iragarriko duen kartela, Elkar-tearen logotipoa diseinatu zuen Juan Angel Perotxenari eskatu zaio.

Auzolana Erratzun

Arizkun eta Erratzu arteko bidea obretan dago. Arizkun herritik Xamarreko bordaraino bidean zementua botazen Udalaren akordio baten bidez. Baina Xamarreko bordatik Erratzuko kanposanturako zatia egin gabe gelditu zen, bere egoera tamalgarria izan arren. Honen beharrikutsita, Erratzuko alkateak auzolanera deitu zituen herritarrek, eta hilabete batez, bidea prest eta berrieta uztea espero du-



UTZITAKO ARGAZKIA

Langile babestuak Elizondoko arkupeetan aritu dira lanean. Argazkian langileak ageri dira, Santi Aldako zinegotziarekin eta Laura Andresena enplegu babestuko arduradunarekin.

'Behikaka.com' egitasmoa berriz abian

lazko arrakasta ikusita eta egoera ekonomikoak berdintsu segitzen duelako, bigarren aldiz **Behikaka.com** ekimena antolatu du Xorroxin Irratiak uztailaren 24rako. Zelaia 2.500 laukitan banatuko da, eta horiei dagozkien boletoak salgai paratu dituzte eskualdeko ostatu eta komertzioetan (5 euro). Internet edo telefonoz ere eska daitezke. Hiru sariak banatzeko arduradunak hiru behin izanen dira, eta behi kakak erabakiko du zein diren irabazleak.

Lehenko lotean haur-ek dira sariak: Donostiako Miramon Arbelaitz jatetxean, bi lagunentzat afaria; Fiteroko bainuetxean, bi lagunentzat hiru eguneko egonaldia pentsio osoan; Arabako Kanpezuko Ibernalo landetxean, bi lagunentzat



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Arras erantzun ona izan zuen ekimenak joan den urtean.

bi gau eta bi gosari; Lurlan produktu lotea eta Irungo Oiasso Museorako zortzi sarrera.

Bigarren lotea: Hondarribiako Ramon Rotea jatetxean bi lagunentzat otordua; Nekatur landetxean bi lagunentzat bi gau eta bi gosari; Kantabriako Quijaseko Posada de Vinuevan bi lagunentzat bi gau eta bi gosari; Aroa ardo lotea eta Oiasso Museorako zortzi sarrera.

Hirugarren lotea: Donostiako Artzak jatetxean, bi lagunentzat afa-

ria; Castillo de Gorraiz hotelean, bi lagunentzat spa, afaria, logela eta gosaria; Arabako Samaniego Jauregian, bi lagunentzat gaua eta gosaria; Laket Bioren produktu lotea eta Oiasso Museorako zortzi sarrera.

Ostatuko tragoxken truke sariok ere zozketatuko dira: Zumaiako Talasoterapiaren hamar lagunentzat zirkuitua; Iza-bako Txapatera landetxean, sei lagunentzat asteburuko egonaldia eta Aizarozko Ostatuan bi lagunentzat afaria.

te. Lehenbiziko zatia egin da eta aste hondar honetan, gelditzen dena akitzea espero dute. Hori bai, kontuan hartu behar da, bi astez ezin izanen dela gaineko bidetik ibili. Bide batez, Erratzuko alkateak herritar guzien parte-hartzea eskertu nahi izan du.

Merkatarien kanpaina

Bertan gastatu fite lelo-

pean, Bertan Merkatarien Elkar-teak udaberriko kanpaina berria abiatu du. Ekainaren 10era bitartean erosketak egiten diren dendetan, seiluen

bidez txartelak betetzea da kontua. 2.000 euroko sari bakarra egonen da, ekainaren 19ko goizean, elkarteko dendetan gas-tatzeko.

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatua

Santiago, 57 2C · ELIZONDOKO
T. 948 581 468 M. 630 354 816

ORDENANTZA BERRIAK → EZTABAIDAN

Udalak bere burua Batzar Nagusiaren gaineratik jarri nahi duela salatu du Ezker Abertzaleak

Ordenantzak berritzeko prozesua baloratu du

TTIPI-TTAPA

«Ordenantzak berritzeko egoera ez da ego-kia izan». Hala adierazi zuen Ezker Abertzaleak hilaren 19an, Ordenantzak berritzeko prozesuaren harira, Elizondon egindako agerraldian. Historian, jendar-tean Ordenantzak «erabateko garrantzia» izan dutela azpimarratu zuen eta hortaz parte hartu nahi izan dutela berritzerakoan: «legeak aitortzen dio Baztani arautzeko aukera berezia, Ordenantzetan bilduz gauzatuko dena. Aukera hori ez da soilik komunalak kudeatzeko, baizik eta Baztanen gobernatzeko eta administratzeko ahalmen osoa ematen duena da».

Ezker Abertzalearen irudiko, Ordenantzak berritzeko egin ziren 14 bileretan, «Baztango jendar-tearen %15 guttienez baztertua gelditu zen Baztango Instituzioetatik, NaBai eta UPNk ha-

la erabaki baitzuten». Eta gaineratu zuenez, «makurrena» zera da: «Na-Baik eta UPNk ez dute inolako asmorik agertu jendartearen elkarbizitza garatzeko, baizik eta lege faxistetan oinarritutako inposizio bidea eramaten ari dira»

22 alegazio aurkeztuta, «kezka eta interesa» badagoela nabarmendu zuen agerraldian Ezker Abertzaleak, baina Udalaren jarrera, «onartezina» dela erran zuen, «ze alegazio egin dituen ikusirik. Berriz ere frogatu du gauza garrantzitsuekin Batzar Nagusiaren gaineratik jarri nahi duela bere burua». Ordenantzak Berritzeko Batzordeetan lortu ez duena «dekretuz inposatu nahi duela» leporatu zion. «Larriena», halere, «Ezker Abertzaleko ordezkaria bazterrean geldituko den berte Batzorde bat planteatu izana da».

Ezker Abertzalearen hitzetan, «Baztango jendarteak bertzelako Baztan bat nahi du, jendearen parte hartzeko aukera ematen duena, erabakiak Baztango interesen alde hartuko direnak».



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Julen Mitxeltoarena, Mari Karmen Irungarai eta Isakak Rekalde mahaian, prentsaurreko egunean.



UTZITAKO ARGAZKIAK

17.168 euroko inbertsioa egin da Arraiozko frontoian

Bere garaian, erran gabe gelditu zenez, Arraiozko frontoia nola gelditu den aipatu dugu. Pilotalekuaren errebotea egitura metalikoarekin eta polikarbonatoarekin itxi da. Horrez gain, frontoiaren gibeletako aldeko erlaitza hormigoitu da, eta altzairuzko sareak paratu dira, laxoan jokatzekoan teilak ez hausteko. 17.168 euro gosta dira eta argazkian ageri den itxura honekin daude orain.



UTZITAKO ARGAZKIAK

36.545 euroko inbertsioa egin da Berroetako frontoian

Hainbat berrikuntza egin ditu Udalak Berroetako frontoian urte honetan. Bertzeak bertze, zolarri berria paratu da, eta horrekin batera, paretak pintatu, frontisa garbitu, goiko egurrak barnizatu, jokatzeko eremuaren lerroak markatu, errotulazioa berri eta eskuleku berria paratu da. Kanpokaldean, frontoirako sarbidea ere egokitu da, eta malda jarri. Lan hauek guztiek 36.545,02 euroko gastua eragin dute. Argazkian frontoia lehen-goiko bi irudiak— eta orain—beheko irudiak—.

MENDI
ostata
Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

SOULE
huleta artisa
Tfn: 948 431 444
Mtl: 923 414 583
ARRAZULAN

BAZTAN

GIZARTEA → ADINEKOAK

Eguneko zentroa ideki du Elizondoko zahar-etxeak

15 plaza daude adineko eta mendekotasuna dutenendako

TTIPI-TTAPA

Francisco Joakin Iriarte zahar-etxean eguneko zerbitzua paratu du martxan Iruñeko IDEA enpresak, 2009ko uztailetik zahar-etxearen kudeaketaz arduratzen den enpresak. Gizarte Ongizate Departamentuaren oniritzia hartu ondotik, 15 plaza sortu ditu adineko eta mendekotasuna duten pertsonendako.

Egoitzan behin betiko sartu ordez, proposatzen den alternatiba da egu-

neko zentroarena, eta horren bidez, erabiltzaileek eguna zahar-etxean pasatzeko, eta arratsan familiarengana bueltatu lo egitera. Zaintza orokorra, osasun kontrola, funtzioen errehabilitazioa, lan bidezko terapia animazio soziokulturala, jangela... Hainbat zerbitzu eskaintzen dira.

Erabileraren iraupena ere diferentea izan daiteke: hilabete baterako edo egun bakarrerako. Hilabete osoaren kostea 550 eurokoa da, egunean zortzi orduko zerbitzua aukeratuz gero, eta 300 eurokoa, lau ordurako nahiz izanez gero. Egun bakarreko prezioa, berriz, 40 eurokoa da.



UTZITAKO ARGAZKIA

55 partaide bildu dituzte Elizondoko zahar-etxean egin diren mus, seises eta partxis txapelketek, eta hauek izan dira sari-dunak: mus txapelketan, Jose Telletxea eta Juan Cruz Irureta txapelak; 2. Juan Jose Durruti eta Agustin Gabasa; 3. Venancio Zozia eta Jose Antonio Gonzalez; 4. Jesus Gaztanbide eta Santiago Larre; Seis txapelketa: 1. Dolores Osés; 2. Maite Almandoz; 3. Consolación Elizalde; 4. Inocencia Arriada. Partxis txapelketan: 1. Pilar Matxin; 2. Jesus M^a Eskudero; 3. Sor Carmen Oiartzabal eta 4. Aurelia Basterrika.



ARGAZKIA: LANDER SANTAMARIA

Patxi Meoki Nafarroako txapeldun Master 50 mailan

Azken orduko aldaketak tarteko, senior eta master mailetako Nafarroako Txirrindularitza Txapelketa Baztanen jokatu zen. Baztango Lehen Itzulia izan zen, eta aldi berean, Nafarroako Kopa-Pedro Canarias Memorialerako puntuagarria. Ziga eta Arizkun aldean 86,3 kilometro egin zituzten, eta Bagordin akitu. Master 50 mailan, Patxi Meoki elizondarra izan zen garaile –argazkian, ezkerretik hasita bigarrena–.



ARGAZKIA: LANDER SANTAMARIA

Bigarren mailako jubeniletan txapeldun

Denboraldia akituta, Baztan Futbol Taldea txapeldun izan da jubenilen mailan, bigarren mailan. Hortaz, hurrengo denboraldian, jubeniletako lehen mailan aritzeko aukera izanen du, beti ere, kanporaketak irabaztea lortzen badu. Argazkian jokariak, Lauri Calvo eta Tomas Garmendia entrenatzaileekin.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Baztan Frankismoaren Garaian erakusketa azken eguna ortzeguna

«Historia errepikatzea ez dugu inork nahi, baina ez errepikatzeko lehenik eta behin ongi ezagutu egin behar da». Halaxe adierazi zuen Martin Gardek *Baztan Frankismoaren Garaian* erakusketaren aurkezpenean. Juainas Paul Arzak Lekarozko institutuko historia irakaslearekin batera egin zuen prentsaurrekoa eta nabarmendu zuten, «duela 30 urte arte isiltasun eta iluntasun handia zegoen eta honelako erakusketak hainbat etxeetako istorioak azaleratzen laguntzen du». Erakusketa ortzegun hau, hilak 27, bitarte Arizkunenea Kultur Etxean egonen da. Institutuko ikasle eta irakasleek 20 urteotan argazki, irudi eta eta idatzizko testigantzak bilduz egindako lan mardula da, eta 1936tik 1975erako garai gogor hura jasotzen duena.



UDALA → PROIEKTU BERRIA ELIZONDON

Ibai-parkea eginen du Udalak Baztan erreka inguruan

300.000 euroko laguntza lortu da Espainiako Gobernutik

TTIPI-TTAPA/ M. OTEIZA

Merkataritza eta turismoa indartzeko helburuarekin, hainbat proiektu ditu eskuartean Udalak, eta horien artean daude, Foru Plaza urbanizatu eta Baztan erreka inguruan meandroa berreskuratuz, ibai-parkea sortzearena.

Virginia Aleman alkatearen irudiko, erreka ingurua «bartzertua eta urbanizatu gabe dago», baina aldi berean, «eremu eder eta lasaia da, paseatzeko eta denbora-pasarako egokia. Horregatik, eta herrigunetik hurbil dagoelako, aukera parega-



UTZITAKO ARGAZKIA
Ibai-parkeak eginen lukeen ibilbidea.

bea duen eremua da».

Kirola egiteko aukera eskainiko lukeen ibai-parkea egin nahi du Udalak, Jaime Urrutia Karrikaren inguruan zirkuitu itxi bat eginez, eta oinezko eta txirrindulariei garrantzia emanez: Pedro Axular

Karrikan hasiko da ibilbidea, erreka parean, eta bidean, zoladura eta toki berdeak tartekatuko litzukete. Pedro Axular Karrikaren amaieran, plaza bat eraiki nahi da, eta aire librean, gimnasio bat. Hortik aitzinera, bi metro

zabaleko bidea egokitu-ko litzateke oinezko eta bizikletendako, meandroa alde batetik bertzezaharkatuz, Pedro Axular Karrikatik parkeraino. Zati honetan egurrezko pasabideak paratu nahi dira erreka gainean. Pergola batekin itzal eremu bat ere sortuko litzateke, bankuekin. Bideak frontoi luzera segituko luke, eta inguru horretan skate pista bat eraiki nahi da, baita zuhaitzi bat ere. Merkatuko Plazara ailegatuta, hemen bertze pergola bat egin nahi da, eta hortik aitzinera, Jaime Urrutia Karrikarekin lotuko litzateke ibilbidea.

Ibai-parkea egiteak 1,298 milioi euroko gastua sortuko luke, baina NaBaik estatuko aurrekontu orokorretan egindako zuzenketaren bidez, 300.000 euro lortu dira.



UTZITAKO ARGAZKIA

Zerbitzu publikoak eztabaidan

Ekzer Abertzaleak antolatuta zerbitzu publikoei buruzko solasaldia egin zen maiatzaren 13an Elizondon. 27 bat lagunek LABeko Mikel Saralegik eskainitako mintzaldian parte hartu zuten. Zerbitzu sozialen eta ongi-izate estatuaren aurrerakiei buruzko argibideak emateaz gain, oraingo egoeraz aritu ziren, «azken hamarkadetan erasoaldi neoliberalaren gerizpean nagusitu den logika pribatizatzailea eta merkantilistaren ondorioak azpimarratuz». Akitzeko, ekzerrekoa eta abertzalea izanen den alternatibaren inguruan azalpenak eman ziren: «zerbitzu publikoen publikotasuna bermatu behar da, eta horien kontrolean eta kudeaketan komunitateak parte hartzeko mekanismoak paratu behar dira». Gaineratu zuenez, «solasaldia aukera paregabea izan zen hurbildutakoak ideologikoki eta politikoki kokatzeko, eta batez ere, azken aldiak Udalak zerbitzu publikoak pribatizatzeke egin duen hautuaren aitzinean erantzun dinamika herritar eta ezkertiar bat aktibatzeke gakoak zahazteko».

FLASH

Elizondoko bestetako kartel lehiaketa

Aurten lehenbiziko aldiz, Elizondoko Herriak bestetako kartel lehiaketa antolatu du. Irekia izanen da eta nahi adina lan aurkezten ahal izanen dira. Ondoko testua agertu beharko da: *Santioak 2010 Elizondoko bestak-fiestas de Elizondo*. Euskarri digitalean aurkeztu beharko dira, eta horrekin batera, orri batean inprimatua. Euskarri digitalak lelo bat izanen du, eta lelo hori daraman gutun-azal batean egilearen datuak idatzi beharko dira. Lanak Herriko Etxeko buzoian sartu beharko dira ekainaren 22ko 12:00etarako. Korreo arruntez bidaltzekotan, ekainaren 17a baino lehen helbide honetara bidali behar da: *Herriko Etxea Jaime Urrutia 4, 31700 Elizondo (Nafarroa)*. Elizondoko Besta Batzordea izanen da epaimahaia eta ekainaren 23an jakinaraziko da epaia. Irabazleak 300 euro eta zikiro-rako bi txartel eskuratuko ditu.

'Kalera oinez? Doike!'

Oinez ibiltzeko edo bizikletaren erabilera bultzatzeko, abian den *Kalera oinez? Doike!* kanpainaren barne, ekainaren 6an, herri guztietan ordu bateko ibilaldia eginen da. Elizondotik hurbil diren herrietatik, Elizondorat antolatuko dira ibilaldiak, eta urrunago direnetan, bertan eginen da paseoa. 12:00etan Elizondon elkartuko dira familia guztiak, eta Osasun Etxeko arduradunek haur bakoitza zapi banarekin sarituko dute.



SENPERE

HEZKUNTZA → IKASTEGIAK

Baionaldean euskarazko ikastegi berria idekiko dela jakin da Herri Urratsen

3 000 gazte bilduko ditu Seaskak laster

Franck DOLOSOR

27. Herri Urrats bes-tak usaian baino jende gutiago bildu du, baina berri ainitz jakiteko eguna izan da. Baionaldean bigarren hezkuntzako ikastetxe berria eginen da, kolegio bat eta lizeo bat bilduko dituena, hain xuxen. Aipagarria da lizeo orokorra izateaz gain, sail profesionalak eta teknologikoak ere eskainiko direla hor. Euskarak urrats berria eginen du beraz, orain arte, sail orokorrak baizik ez baitziren irakasten ikastoletan eta hain beharrezkoa den formakuntza profesionalarik ez. Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoak Seaskari ematen dion dirulaguntza emen-

datuko da aurten eta gainerat, Iparraldeko auzapezen biltzarreko buruak, Senpereko auzapeza denak, jakinarazi du galdetuko duela herri guzietan dirulaguntza bat bozka dezaten ikastolen alde. Bi neurri horiek ongi etorriak dira Seaskari ematen zion laguntza ttitikuko baitu Eusko Jaurlaritzak. Koldo Teillitu Ikastolen presidentak ihardoki du ez dutela gibelarat egiten duten urratsik onetsiko eta ikastolak parean izanen dituela beti Jaurlaritzak.

3 000 GAZTE

Seaskak 200 ikasle gehiago izanen ditu laster, erran nahi baita 3 eta 18 urte arteko 3 000 gazte bilduko dituela orotarar. Aurtengo Herri Urratsen irabaziekin, bi ikastola berri idekiko dituzte Itsasun eta Lekornen.



ARGAZKIAK: FRANCK DOLOSOR

Pentsatutako helburuak lortu ezinik gelditu da Herri Urrats, eguraldiak ez baitzuen lagundu.

Azken hortan, herriko bi gaztetxo ibiliko dira: Lekornen bizi diren Gaxintoneako bi haur tikiak!

Bi heriotza

Aitzineko egunetan, adin ederreko bi herritar ezagun azken egoitzaraz eremanak izan dira. Joset Borthaire *Audet* ibarrundarra 1923ko andredena mariaz sortua zen. Ofizioz kamiungidaria zen eta afizioz pilotaria, bistan da! Bere kamiunarekin etxeak egiteko tresnak banatu izan ditu Lapurdi osoan. Léon anaia zenarekin aritzen zen, Bokalen lehenik eta gero Senperen. Pilotarri dagokionez, Jean lthourria bere adiskide haundiak TTIPITTAPARI erran dio, «xin-

txoki ainitz aritu zela pilotan. Ez zen xapeldun handia izana baina alimaleko jokalaria zen, funtsean familiako mutiko guziak bezala». Ithourria oroit da Mixel eta Joset *Audet* anaiak Mautletarren kontra aritu zirela behin Bidarraiko lurreko plazan. 40 punduko partidak bi oren eta 40 minuta iraun zuen! Eta azkenean, senpertarrak nagusi. Arretxean ikasle zirelarik lthourriak eta Joset *Audet*ek elgarrekin presentatu eta erdietsi zuten orduko *Certificat d'étude* diploma. Senpertarrek gogoan dute oraino Besta Berriko kapitaina izan zela. Etxekoak inguruan izan ditubeti, laguntza eta maitasun handia emanez.

Bertzalde, Véronique Bereau, sortzez Zamora, ere zendu da maiatz erditsuan. Aipagarria da Beronika berri emale xaharrena zela gan den urtean kaleratu zen *Senperetik Senpererat* oroitzen bilduman. 1917ko ereaoren 20an sortu zen Xuhainean, Xerrenda auzoan. Zazpi haurrideen artean gazteenaz. 1936an Lorentzo Bereau Arantzan sortu zen Kamietako seme zaharrenarekin ezkondu zen. Euskal herritar aintzek bezala, Lorentzok eta Beronikak herritik gan behar izan zuten lan egitarat. Labennen Landeetan bizitu dira luzaz baina loturak atxiki dituzte beti sorterriarekin. Dolu-minak familiei.

MONTXO ОСТІТІУА

Dantxarinetik 2 km-tara

ТАБАКО-ДЕНДА
АНЗАН-БОРДА • УРДАЗВІ

Egunero irekia 10:30etik 02:30era

VENTA PEIO

Bere (Administratiboa)	Dantxarinea	Urdetza	Lanabete
71700 BERGARA	51712 URDIZ	51700 URDETZA	51000 LANABETE
Tel: 948 625 130	Tel: 948 509 300	Tel: 948 620 710	Tel: 948 700 004
Fax: 948 625 127	Fax: 948 509 440	Fax: 948 625 306	Fax: 948 700 005

ERRUGBIA → OSPAKIZUNAK EKAINAREN 5EAN

20 urte bete dira 'basurdeek' Frantziako Txapelketa lehen aldiz irabazi zutenetik

Ekainaren 5ean lehen txapel hori ospatuko dute herriko errugbizaleek

Xan HARRIAGUE

1990eko ekainaren 3a egun handia izan zen gure herriko errugbi taldearentzat. Lehen aldikoz hirugarren mailako Frantziako Txapelketa irabazi zuen, Bidarte menean hartuz 16 eta 12.

Egun handi hori gogoratzeke besta antolatatu du elkarteak, eta datorren ekainaren 5ean ez da ekitaldi eta giroirik faltako Animaineako zelaietan. Horren kari, duela 20 urte txapelketa irabazi zutenak errugbian aritzen ikusteko au-



UTZITAKO ARGAZKIA

1990ean Frantziako txapelketa irabazi zuten jokalariek eta taldeko zuzendaritzako kideak.

kera izanen da.

16:30ean *Sararians* edo taldea sortu denez geroztik hura markatu duten jokalarien selezio baten kontra ariko dira. Horren ondotik

gazteek ere haien partida izanen dute. Egunak bukatzeko duela 20 urte izan zen moduan, ospakizuna izan da nagusi aperitifarekin eta afariarekin.

Informazioa gehiago nahi dutenek edo afarian haien tokia atxiki nahi dutenek honako helbide honetan egin dezakete www.sarako-izarra.fr.

FLASH

Sarako Itzulia ekainaren 6an

Aurten ere gure bazterrak maite dituztenek mendiz mendi eta oihan ez oihan ibiltzeko aukera izanen dute Itzuliaren kari. Ekainaren 6an izanen da, igandarekin. Usaiako itzulia egingen dute Zohalmentitik, Larunera eta Iban-telin barna Axuriara, plazara itzuli aitzin. Guztira 45km izanen dira 2.200 metroko malda-rekin. 07:00etan abiatuko da ibilaldia, baina aitzinetik izena eman beharko da. Informazio gehiago nahi izanez gero, webgune hau bisitatu daiteke <http://axuria.monsite.wanadoo.fr> edo TTPII-TTAPAren 39. orrialdera joan.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

edredoi funtsak
albornoak
edredoi nordikoak
ohe estalkiak
maindireak
mantelak
kuxinak
toailak

UDABERRI-UDAKO
KOLEKZIO BERRIA

Tafalla, 13 • IRUÑEA
948 230 634

EZKONTZAK

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Zihara Taberna Urra, Lesakakoa, maiatzaren 3an.

Asier Telletxea Iribarren, Etxalarkoa, maiatzaren 3an.

Ianiz Kevin, Etxalarkoa, maiatzaren 6an.

Idoia Narbarte, Sarakoa, maiatzaren 8an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Brigite Ivandekics, Sarakoa, apirilaren 29an.

Jakobo Eskudero Etxeberria, Goizuetakoa, maiatzaren 15ean, 86 urte.

Fernando Ezkurra Sagardia, Oieretikoa, maiatzaren 5ean, 64 urte.

M^a Milagros Agirrezabala Irazusta, Leitzakoa, maiatzaren 6an, 59 urte.

Jose Ignacio Amorena Latasa, Elizondokoa, maiatzaren 11n, 81 urte.

Francisco Olano Baraibar, Leitzakoa, maiatzaren 11n, 89 urte.

Josefa Alduntzin Gogortza, Leitzakoa, maiatzaren 4an, 71 urte.

Josefa Zozaia Goñi, Beintza-Labaien-goa, maiatzaren 8an, 80 urte.

Victoriana Maritorea Etxebere, Amaiurkoa, maiatzaren 16an, 86 urte.

Jose Joaquin Erregerena Vera Potxolo, Iturengoa, maiatzaren 14an, 58 urte.

Jose Manuel Osakar Goienetxe, Elizondokoa, maiatzaren 16an, 95 urte.

Jose M^a Gaztelumendi Exposito, Igantzikoa, maiatzaren 17an, 69 urte.

Micaela Erasun Mindegia, Iturengoa, maiatzaren 17an, 87 urte.

Bittori Arraztio Agerralde, Oizkoa, maiatzaren 18an, 93 urte.



**Joxemi
JORAJURIA TELLETXEA**

Elgorriagan, 2008ko maiatzaren 27n

II. URTEURRENA

Urak dakarrena
urak daroa
Zuk emandakoa
gurekin gelditzen da.

ZURE FAMILIA



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.
Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.
Funeraria Baztan

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA

MENDI IBILALDIEN ZIRKUITUA → EKAINAREN 6AN ETA 13AN

Sara eta Lesakako mendi itzuliak eginen dira heldu diren igandeetan

45 eta 25-34 kilometroko zirkuituak izanen dira

TTIPI-TTAPA


Arantzako Mendi Itzuliaren ondotik, aitzineko alean aipatu bezala, igande honetan eginen da Baztangoa, Lekarozen hasi eta akituko dena. Eta horien ondotik, ekainaren 6an Sarakoa eginen da, eta ekainaren 13an Lesakakoa.

XIII. SARAKO ITZULIA

Aurten XIII. edizioa duen Sarako Mendi Itzulia ekainaren 6an iragannen da, Axuria Mendi Taldeak antolatuta. Ohi bezala, 45 kilometroko ibilbidea izanen da eta 2.200 metroko malda duena.

Izen-ematea egun berean egin beharko da Sarako kiroldegian, 06:30etik aitzinera, eta 12 euro ordainduta. Izena emandakoan, ibiltari bakoitzak txartela bat izanen du, eta kontrol tokietan hori erakutsi beharko du. Ibilaldia, berriz, 07:00etatik 08:00etara bitartean abiatuko da.

Sarako plazan hasi eta Suhalmendi, Santinazio, Iturriederreta, Larrun, Lizuniaga, Ibantelli, Lizarieta, Sarako Usotegia, Atxuria, Zugarramurdi eta Istilarten barna ibiliz, berriz Sarara itzuli beharko dute mendizaleek. Xehetasunak <http://axuria.monsite.wanadoo.fr> web orrian



ARGAZKIAK: AXURIA MENDI TALDEA, KULTURKARI ETA ONINART

Goiko argazkian mendizaleak Sarako Itzuliako kontrol postu batean. Behekoak, berriz, Sara eta Lesakako mendi itzulien perfilak dira.

edo (0033) 559 542014 telefonora deituta.

LESAKAN BI AUKERAN

Beti Gazte Elkarteak antolatzen duen Lesakako Mendi Itzulia ekainaren 13an, igandearekin, eginen da, aurten hamargarren aldiz.

Bertze aldietan bezala, bi ibilbide izanen dituzte aukeran parte hartzen dutenek: luzea -34 kilometrokoa eta 1.800 metroko desnibela duena- eta laburra -25 kilometrokoa eta 1.200 metroko desnibela duena-.

Ibilbide motza auzkeratzen dutenek itzuli hau egin beharko dute: Lesakako plaza (79 metro), Sastrin (433 metro), Amekarrungo ataka (670 metro), Burnaiztegi (714 metro), Bianditz (844 metro), Errenga (780 metro), Ikatzulo (500 metro), Olazar (165 metro) eta Lesakako plaza.

SARAKO ITZULIA

45

KILOMETRO
eta 2.200 metroko desnibela dituen itzulia da Sarakoa. XIII. edizioa da aurten goa eta ekainaren 6an izanen da.

LESAKAKO ITZULIA

25-34

KILOMETRO
